



PERTSONA  
HELDUEN  
OINARRIZKO  
HEZKUNTZA ETA  
BIDE-SEGURTASUNA



# Aurkezpena



Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculumeko (2008ko urriaren 31ko Agindua) helburuen artean **gizarteko arauak eta konbentzioak errespetatzea** dago, besteak beste, bide-hezkuntzako arauak, trafiko-istripuak prebenitzeko jarrerak garatuz.

Pertsona helduen Oinarrizko Hezkuntza zentroen sareak, formazioan ezezik, gizarteko kohesioan garrantzia handia du, hiritar orori eskaintzen baitizkio aukerak, hasierako maila edozein izanda ere. Hala ere, **bide-hezkuntza sarritan bigarren mailako edukia izaten da, beste eduki batzuek duten pisuagatik.**

Halaber, zentro hauetan ikasle diren pertsona askok gidabaimena dute eta beste asko gidabaimena ateratzeko bidean daude edo etorkizun baten aterako dute. Dena dela, **istripuen prebentzioa lantzeko hezkuntza esparru ezin hobea da.** Testuinguru honetan, bide-hezkuntza hiru eremu curricularretan -gizarte, komunikazio eta Zientzia eta Teknologia eremuetan- autobabesa eta elkarbizitza zeharka lantzeko tresna eraginkorra izan daiteke.

Horretarako, ikasgelan curriculumeko eremu bakoitza lantzeko jarduerak proposatzen dira dokumentu honetan, beti ere prebentzio ikuspuntutik abiatuta. Hezkuntza eragile moduan, **zure ekarpena ezinbestekoa da trafiko-istripuen epidemia isil honen aurka ekiteko.** Eskerrik asko aurretiaz jarduera hauek landu eta ikasgelan aplikatzeagatik.

# Aurkibidea



|  |   |
|--|---|
| Trafiko-istripuak, benetako arazoa, errealegia.                            | 4 |
| Mugikortasun segururako hezkuntza, prebentziorako tresna.                  | 5 |
| Mugikortasun segurua eta Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza curriculum. | 6 |

## Gizarte-eremuko jarduerak

|                                |    |
|--------------------------------|----|
| 1. Ekidin daiteke.             | 10 |
| 2. Oporretan goaz.             | 19 |
| 3. Gure hiria, gure bizigunea. | 23 |
| 4. Zer egiten dugu emozioekin? | 25 |
| 5. Denon artean erabakitzea.   | 31 |

## Komunikazio-eremuko jarduerak

|                               |    |
|-------------------------------|----|
| 6. Zereginak banan-banan!     | 35 |
| 7. Emozioa eta erantzukizuna. | 39 |
| 8. Konbentzitzea.             | 43 |
| 9. Nor zara zu?               | 47 |
| 10. Zaila da ezetz esatea!    | 51 |

## Zientzia eta Teknologia-eremuko jarduerak

|                                   |    |
|-----------------------------------|----|
| 11. Motxila.                      | 59 |
| 12. Ustekabez beteriko ibilbidea. | 63 |
| 13. Benetako neurria.             | 66 |
| 14. Bizitza kalean.               | 68 |
| 15. Hobekuntza plana.             | 71 |

# Trafiko-istripuak, benetako arazoa, errealegia.

Historikoki gure gizartearen garapenak motordun ibilgailuekin izan du lotura. Ibilgailu kopurua, errepide sarea eta urtero egindako kilometroak etengabe hazi dira. Mugikortasunaren hazkundeak, baina, ondorio latzak dakartza: kutsadura, auto-ilarak eta batez ere trafiko-istripuak.


Gizartea geroago eta kontzienteagoa da **trafiko-istripuetako biktima kopurua jaitsi beharraz**. Urtero gure inguruan izaten diren hildakoak eta larriki zauritutakoak asko dira eta ezin ditugu ahaztu trafiko-istripuen zeharkako kaltetuak; senitartekoak, lagunak, ezagunak, enpresak... nolabait gizarte osoak sufritzen ditu ondorioak.

**Trafiko-istripuak nola prebenitu daitezkeen** galdetuz gero, ez dago erantzun errazik, baina adostasun orokor bat badago: **trafiko-istripuen gehiengoa giza-faktorea tartean delako ematen da**. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza aspaldidanik ari da prebentzioa giza-faktoretik lantzeko ahaleginetan.

Giza-faktorearen ikuspuntutik abiatuta, **prebentzioa jokaera bat** dela ulertzen da. Jokaera honek arriskutsuak iruditzen zaizkigun egoerak saihestera garamatza, edo arrisku-egoera bat gauzatuz gero, ondorioak gutxitzera.

Gure ereduak batez ere bi istripu mota ekidin nahi ditu; istripu hilgarriak eta kalte larriak eragiten dituzten istripuak, kalteak istripua izan duen pertsonaz gain bere senitartekak eta gertukoek ere jasaten dituztela kontuan hartuz.

Prebentzioa egin ahal izateko, pertsonak **arriskua ezagutu, arriskuaz ohartu eta arriskua saihesteko nahia** izan behar du.



# Mugikortasun segururako hezkuntza, prebentziorako tresna.



Istripuen prebentziorako gure hezkuntza eredua jasotzen duen dokumentua **«Mugikortasun Segururako Hezkuntza. Konpetentzien Gida»<sup>1</sup>** da.

Gida honek hezkuntza-ibilbide integral bat finkatzen du eta *mugikortasun segururako hezkuntzan zer, nola eta noiz ekin zehazten du*. Dokumentuak pertsonak bizi osorako trafiko-istripuak saihestu edo istripu hauen ondorioak gutxitzeko beharko dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrerak zehazten ditu.

Gidak mugikortasun segururako zazpi oinarrizko gaitasun zehazten ditu:

- Arreta
- Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia
- Ingurunearen azterketa
- Taldeko presioarekiko erresistentzia
- Egokitzapena eta malgutasuna
- Neure burua eta nire emozioak kudeatzea
- Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea



<sup>1</sup> Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun segururako hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

# Mugikortasun segurua eta pertsona helduen oinarrizko hezkuntza curriculuma.

Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen integral eta harmonikoa da, garapen intelektuala, afektibo eta soziala.

Bitzita osoan zehar pertsonen prestakuntza eta kualifikazioa lantzeak -helduen prestakuntza-zentroetako ikasketen bidez- hezkuntzaren oinarri nagusi bati erantzuten dio: giza gaitasunen garapen integrala sustatzea, hau da, pertsonen gaitasun fisikoak eta motorrak, kognitiboak, komunikatiboak, sozialak eta afektiboak.

Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzak helburu soziala betetzen lagundu behar du, hau da, beste aukera bat eskaini behar du titulazio akademikoa lortzeko edo ikasketak sistema arautuan sartzeko.

Mugikortasun segururako hezkuntza **pertsonen heziketa integralerako zeharkako edukia da**. Enfasi berezia jartzen du pertsonaren arduran -norbanakoaren eta gizartearen osasunarekiko arduran- autobabeseko jokaeretan, beste pertsonenganako errespetuan eta arauetan. Emozioak, elkartasuna eta arreta osoa kudeatzea eskatzen duten egoerak lantzen dira.

## BALIOAK

Mugikortasun segururako hezkuntzak pertsona istripuen **prebentziorako** elementu aktibo bezala kontsideratzen du.

Ikuspegi hau kontuan hartuta, berebiziko garrantzia hartzen dute **autonomiak** (pertsonek bere kabuz jarduteko duen gaitasuna); **erantzukizunak** (bidearena ingurune konplexua izanik, ingurune hau aztertu, aukera desberdinak baloratu eta bere segurtasunaren aldeko erabakiak hartzeko gaitasuna); **iniziatiba pertsonalak** (egoera baten aurrean erantzuteko gaitasuna); **planifikazioak** (plangintza bat sortu eta estrategiak sortzeko gaitasuna); **baliabideen kudeaketak** (egoerei soluzioa emateko prozesuen optimizazioa) eta **emaitzen balorazioak** (erabilitako prozesu eta estrategiak moldatzea ahalbidetu eta beste egoera edo arazo batzuen aurrean jokatzeko balioko du).

## TREBETASUNAK ETA EGITEN JAKITEA

“Egiten jakitea” galderak sortzeko gaitasunari estuki lotua dago; ereduak lortu eta harremanak eta egiturak identifikatzea; frogak aurkitzea; argudioak kritikatzeko... eta aldi berean neurri bateko antsietate eta frustrazioari aurre egitea.

*Mugikortasun segururako hezkuntza: konpetentzien gida* dokumentuak istripuak prebenitzeko hezkuntza-eredu bat proposatzen du. Eredu honek gizabanakoa eta gizartearen garapenerako “egiten jakitea” hartzen du erreferentziatzat. Ikasgela lanketa hau egiteko espazio aproposa da, lantaldean lan egiteko; besteen ikuspuntuak onartzeko; desberdintasunak errespetatzeko; estrategia pertsonal berriak ezartzeko eta datuak oinarritzat hartuta, hainbat gai deskribatu eta gai horiei buruzko iritziak emateko.

## HELBURUAK

Gaur egungo gizarteak aitortzen du pertsonen eta gizartearen garapenerako bizi osoko ikaskuntza ezinbesteko baldintza dela. Pertsona oro etengabe prestatu beharra dagoela ulertzen da, bizi dituen egoerak eta epe ertain eta luzean biziko dituen aurre egiteko. Formazioa, beraz, norbanakoa eguneratuta izateko tresna bat da, gizarteak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko.

Horrela ba, mugikortasun segururako hezkuntzaren helburuak pertsona helduen oinarrizko hezkuntzako helburuekin bat datoz, eta curriculumeko helburu horiek indartu eta finkatu egiten dituzte (Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculum, 2008ko urriaren 31ko Agindua - EHAA 2008ko azaroaren 25).



*Gaiari lotutako helburu funtsezkoenak hurrengo hauek dira.*

### **Arduraz bizitzen ikastea.**

- Hiri eta landa eremuetan mugikortasunari dagozkion jokaerek eta erabaki pertsonalek norberaren eta giza taldeen osasunean dituzten ondorioez jabetzea.
- Hiri eta landa eremuetan mugikortasunari dagozkion jokaerek eta erabaki pertsonalek norberaren eta giza taldeen osasunean dituzten ondorioez jabetzea.
- Natura-ingurunea balioestea eta hura arduraz gozatzea; haren funtzionamenduaren oinarrizko mekanismoak aztertzea; giza jarduerak naturan duten eragina ulertzea; eta hura babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzea, gizakien bizi-kalitatea baldintzatzen duen elementua baita.
- Nork bere burua kosmoseko eta lurreko partaide, izaki bizidun eta giza espeziearen kide hartzea, horrela norberaren izaera eta gizaki guztien izaera komuna ulertzeko eta ekosistema osasuntsu egon dadin arduratzeko.

### **Ikasten eta pentsatzen ikastea.**

- Modu koherentean eta kritikoa pentsatzen ikastea, eta diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta banaka eta taldean lan egin eta ikasteko ohiturak garatzea eta sendotzea; horrela, ikasketako lanak eraginkortasunez egin, garapen pertsonala lortu, eta horrek bultzatu egiten du norbere buruarekiko konfiantza, sen kritikoa, ekimen pertsonala, jakin-mina, interesa eta sormena.
- Problema zientifikoak eta matematikoak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea -kalkulu-eragiketa, geometria-jakintza eta zenbatespenen bidez eta eguneroko bizitzan aplikatuz-, eta, horrela, ikasleak bere jakintza eta baliabide materialak edo beste inoren lankidetzara edo laguntzara erabiliz, problema horiek sormenez eta autonomiaz ebazteko.
- Zientziaren eta teknologiaren garapena, aplikazioak eta haiek ingurune fisikoan eta sozialean duten eragina jakitea eta balioestea, horretarako zientzia jakintza integratuz hartuz -hainbat diziplinatan egituratua-, metodo zientifikoak aplikatuz eta baliabide teknologikoak erabiliz, jakintzaren eta esperientziaren eremuetako problemak identifikatzeko eta ebazteko.

### Elkarrekin bizitzen ikastea.

- Bizikidetzak arauak ezagutu eta onartu, norberarenak ez bezalako ikuspegiak errespetatuz, elkarrizketa landuz, norberari dagozkion ardurak hartuz, giza eskubideak errespetatuz eta hiritar aktiboa izateko prestatuz.
- Auziak saihesteko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, lankidetzan bizi ahal izateko eskolan, familian, etxean eta ikaslearen giroko gizarte-taldeetan.
- Betebeharrak arduraz onartzea eta eskubideak ezagutzea eta erabiltzea ondokoa errespetatuz.

### Pertsona gisa garatzen ikastea.

- Bizi-ibilbidea gainerako pertsonekin batera eraikitzen duen subjektu autonomotzat ikustea norberaren burua, norberaren ekintzek zein irizpide eta balio jarraitzen dituzten jakitea, kritikoa eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta besteekin, horrela lortu ahal izateko norberaren garapen osoa, gizartearen garapena eta naturarekiko oreka.
- Autoestimua eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan eta besteekiko harremanetan ere; betiere, indarkeria eta aurreiritziak alde batera utzita.

- Nork bere buruaren, bere ezaugarrien eta aukeren irudi zuzena egitea, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea esfortzuari eta zailtasunak gainditzeari.
- Nork bere buruarekiko konfiantza, partaidetza, sen kritikoa eta ekimen pertsonala garatzea, eta konpromisoa hartzea planifikatu, erabakiak hartu eta ardurak hartzea eskatzen duten proiektuekin.

Dokumentu honetan proposaturiko mugikortasun segururako hezkuntza jarduerak helburu hauetako batzuekin lotura zuzena dute.

### PARTAIDETZA-METODOLOGIA

Gaitasun bat lantzea bizitzarako ikasketa bat burutzea da, hezkuntza ingurunean aurreikusitako gabeko gertakizunei aurre egiteko erantzun egokiak ahalbidetuko dituen ikasketa. Argi dago, beraz, gaitasunen garapenak lantzeko **ikasketa aktiboa** behar dela, ikasleak prestakuntzaren bidez izaten jakin, egiten jakin eta ikasitakoa testuinguru desberdinetan aplikatzen jakin dezan.

Materia desberdinetan lantzen ditugun kontzeptuak **eguneroko arazo** **konponketari** lotuta daude, eta ikasgelan landutako gaitasunek jakin-mina pizten duten esperientziak ahalbidetzen dituzte, ikerketan, arazoaren soluzioan eta komunikazioan konfiantza eraikiz.

Dokumentu honetan proposatzen ditugun jarduerak mugikortasun segurua gure egunerokotasunean kokatzen dute, gizarte-ardatz bat bezala. Horrela, proposatutako materialak lanketa-eremuari errealitate dosi bat eskaintzen dio, mugikortasunaren eta istriputasen azterketarako ikuspegi berri bat.

### EDUKIAK

Jarduera hauen edukiak Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza curriculumeko hiru eremutan antolatzen dira:

- Gizarte-eremua.
- Komunikazio-eremua.
- Zientzia eta Teknologia-eremua.

Jarduerak berdinen arteko ikasketa tresna dira, eta aldi berean bi lanketa mota errazten dituzte: pertsona helduen oinarrizko hezkuntzako hiru eremuen lanketa eta mugikortasun segururako hezkuntza.



# Gizarte- eremua



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## Curriculumari dagokion helburua:

Gizarte-fenomenoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harreman-prozesuak eta mekanismoak ezagutzea.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 1. multzoa. Gizarte-eremu osoaren edukiak.

Informazio garrantzitsua lortu, interpretatu eta erregistratzeko ildoak, hainbat iturri erabiliz.

### Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

#### Ingurunearen azterketa.

3. maila (Zirkulazio-arauak ezagutzen ditu, eta zirkulazio-testuingurura behar bezala egokitzeko balio duten bide-ingurune elementuak aztertzen ditu).

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honek parte-hartzailea trafiko-istripuen arazoaren aurrean jarriko du. Datu objektiboen bidez helduko zaio gaiari, eta datu hauen inguruan analisia, egoerarekiko hausnarketa, jarrerak, jokaerak eta prebentziorako beharrezko diren neurriak aztertuko dira.

Jarduerak lau fase ditu. Fase bakoitza banaka landu daiteke, lan-saio bana erabiliz. Lau faseak osotuz gero, istripu-tasen errealitatea, kausak eta norbanakoak eta gizarteak hartu beharreko prebentzio-neurriak sakon landuko dira.

*Lehen fasea: "Gauzak diren bezala"*

*Bigarren fasea: "Niri zera gertatu zitzaidan..."*

*Hirugarren fasea: "Zergatiak azter ditzagun"*

*Laugarren fasea: "Ekidin daiteke"*

## Helburuak:


- Gizakien bizitzan trafiko-istripu larriek eragiten duten inpaktu larria ezagutzea eta gaiari buruz kontzientzia hartzea.
- Hasierako pertzepzio subjektiboa datu errealekin egiaztatzea.
- Istripuen kausei buruzko hausnarketa egitea.
- Istripuak ekiditeko ezarri behar diren prebentzio-neurriak aztertzea, hala nola norik eta nondik burutu behar dituen aztertzea.
- Norberak dituen jokaerei buruz hausnarketa egitea.

## Metodoak:

Banakako lana, talde-lana, eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Papelografo edo arbela, kolorezko errotuladoreak, ordenagailuak, estekak eta datu estatistikoak.



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## Jardueraren garapena

### 1. Fasea: "Gauzak diren bezala"

Hezitzaileak parte-hartzaile bakoitzari trafiko-istripuen "argazki" bat egitea eskatuko die, hainbat eremu geografikotan ematen diren datuak alderatuz: Euskadi, Espainia, Europa eta mundua.

Horretarako hainbat baliabide jarriko ditu eskura: Euskadi, Espainia, Europa eta munduko istripuen estatistikak, mapa interaktiboak eta artikuluak. Loturak 1 eranskinean daude.

Parte-hartzaileak binaka elkartuko dira eta web-orrialdeak kontsultatuko dituzte. Horren bitartez, ingurune digitalean trebatzen dira, eta baita informazioa bilatzen.

Kontsulta burutu ondoren, hezitzaileak zera eskatuko die parte-hartzaileei:

- Euskadin eta Espainian izandako hildako eta larriki zauritutako biktimen kopuruak alderatu ditzatela.
- Binaka jarrita, munduko beste edozein herrialdetako datu berberak bila ditzatela. Beraiek erabakiko dute zein herrialde aukeratu.

Hezitzaileak proposatzen dugunaren antzeko taula bat marraztuko du arbelean, eta taldeek aztertutako datuak idatziko ditu bertan.

| Eremua                       | Trafiko-istripu hilgarrien kopurua | Hildako biktima kopurua | Larriki zauritutakoen kopurua |
|------------------------------|------------------------------------|-------------------------|-------------------------------|
| Euskadi (2017)               |                                    |                         |                               |
| Espainia (2017)              |                                    |                         |                               |
| Beste herrialde bat 1 (2015) |                                    |                         |                               |
| Beste herrialde bat 2 (2015) |                                    |                         |                               |
| Beste herrialde bat 3 (2015) |                                    |                         |                               |
| Beste herrialde bat 4 (2015) |                                    |                         |                               |


- Hezitzaileak eskatuko du parte-hartzaileek, banaka, datu hauei buruzko hausnarketa egin dezatela:
  - Zer uste duzue datu hauei buruz?
  - Daturen bat deigarria iruditu zaizue?
- Ondoren datuei eta banakako hausnarketei buruzko eztabaida zabalduko da.
- Amaiera emateko, hezitzaileak hitz egindakoaren sintesia egingo du.

# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 2. Fasea: "Niri zera gertatu zitzaidan..."

Fase honetako helburua taldekideak beraien edo ingurukoen esperientzia pertsonalarekin bat egitea izango da. Esperientzia pertsonalen inguruko ekarpenek kontzientzia hartzen lagunduko dute: gure ingurunean trafiko-istripuak gertuko fenomenoak dira. "Niri ez zait gertatuko" pentsamendua alboratzea eta parte-hartzaileak bere jarrera eta jokaerei buruzko hausnarketa egitea ere lortu nahi da.

- Horretarako hezitzaileak taldekide guztiei eskatuko die gehienez orrialde erdi erabilita istripu baten kontakizuna idazteko. Istripu horrek zuzenean edo zeharka beraiekin erlazioa izan behar du.
- Istripuari buruzko kontakizuna idatzitakoan, hezitzaileak taldearekin partekatzeke eskatuko du.
- Kontakizun bakoitzeko, talde bakoitzak istripuaren kausak zeintzuk izan zitezkeen aztertu behar du, hipotesi bat edo gehiago formulatuz. Istripua zein jarrerak eragin zuen ere aztertu behar dute, eta istripua ekiditeko -edo gutxienez bere ondorioak murrizteko- zein jokaera izango litzatekeen balagarria.
- Hezitzaileak eztabaidaren sintesia egingo du eta eztabaida amaitutzat joko du.



## 3. Fasea:

### "Zergatiak azter ditzagun"

Hezitzaileak parte-hartzaileak lau edo bost pertsonatako taldeetan antola daitezela eskatuko. Ondoko galderari erantzun behar diote:

*Zeintzuk dira trafiko-istripuak eragiten dituzten kausak?*

Trafiko-istripuen kausa edo arrazoiak

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_

- Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du.
- Hezitzaileak 1 eranskinean dauden datuak luzatuko ditu.
- Eztabaidari bukaera emateko hezitzaileak emaitzak eta taldean irten diren ondorio nagusiei buruzko sintesia egingo du.



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 4. Fasea: "Ekidin daiteke "

Azken fase honetan, hezitzaileak istripuak ekiditeko -edo istripuen ondorioak minimizatzeko- neurriak proposatzeko eskatuko die parte-hartzaileei.

- Papelografo edo arbelean eztabaidako ekarpenak idatziko dira.

| Kausa edo arrazoia | Prebentzio-neurria<br>Prebentzio-jarrera edo jokaera indibiduala |
|--------------------|--|
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |
|                    |  |

- Talde-lana bukatutakoan, denek ekarpenak kontuan hartuta eztabaida hasiko da. Eztabaida dinamizatzeko galdera hauek egin daitezke:
  - *Ikusi dugunetik zer izan da deigarriena zuentzat?*
  - *Zer ez zenuten ezagutzen?*
  - *Informazio honek zuen egunerokotasunean eta ohituretan aldaketak egitera motibatzen zaituzte?*
  - *Zein ohitura?*
  - *Zein jokaera zehatz aukeratzeko duzue hemendik aurrera? zein jokaera baztertuko duzue?*
- Eztabaida bukatzeko, hezitzaileak esandakoaren sintesia egingo du.



### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Trafiko-istripuen inguruan dagoen problematikaren tamaina.
- Geografia-eremu eta herrialdeen arteko desberdintasunak.
- Istripuak eragiten dituzten arrazoia.
- Trafiko-istripuen ondorioak zeintzuk diren: kaltetuak, familia, komunitatea eta orokorrean, gizartea.
- Norberak edozein egoerari aurre egiteko zein jarrera eta jokaera aukeratzeko erantzukizuna duela.
- Aldatu daitezkeen ohitura eta jokaerak zeintzuk diren.



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 1. Eranskina

## Datuak

1. Jarraian parte-hartzaileek herrialdeen arteko datuen alderaketa egin ahal izateko web-orrialde batzuetarako loturak luzatzen ditugu. Lotura hauei esker herrialdeen arteko datuen konparaketa egin dezakete, ehuneko eta zenbaki absolutuetan, urte bereko istripu eta biztanle kopuruak kontuan izanda.

### Euskadi


Zirkulazio istripuak 2017 urtean



Beste urteetako datuak ikusi



### Datuen laburpena. Zirkulazio istripuak 2017an (Ertzaintza + Udaltzaingoa)



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 1. Eranskina - Datuak

### Euskadi

Biztanleak 2017an

2.180.449 biztanle



Beste urteetako datuak ikusi



### Euskal AEko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, Lurralde Historiko eta sexuaren arabera. 2018/01/01



|                      | Euskal AE |             |              | Araba/Álava |             |              | Bizkaia   |             |              | Gipuzkoa |             |              |
|----------------------|-----------|-------------|--------------|-------------|-------------|--------------|-----------|-------------|--------------|----------|-------------|--------------|
|                      | Guztira   | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira     | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira   | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira  | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| <b>Guztira</b>       | 2.180.449 | 1.057.944   | 1.122.505    | 325.518     | 160.154     | 165.364      | 1.140.662 | 548.872     | 591.790      | 714.269  | 348.918     | 365.351      |
| <b>Jaiotza-urtea</b> |           |             |              |             |             |              |           |             |              |          |             |              |
| 2017                 | 16.983    | 8.718       | 8.265        | 2.918       | 1.456       | 1.462        | 8.460     | 4.360       | 4.100        | 5.605    | 2.902       | 2.703        |
| 2016                 | 18.283    | 9.280       | 9.003        | 3.105       | 1.568       | 1.537        | 9.103     | 4.627       | 4.476        | 6.075    | 3.085       | 2.990        |
| 2015                 | 18.995    | 9.766       | 9.229        | 3.241       | 1.685       | 1.556        | 9.312     | 4.869       | 4.443        | 6.442    | 3.212       | 3.230        |
| 2014                 | 19.540    | 9.916       | 9.624        | 3.333       | 1.709       | 1.624        | 9.764     | 4.945       | 4.819        | 6.443    | 3.262       | 3.181        |
| 2013                 | 19.418    | 9.932       | 9.486        | 3.170       | 1.669       | 1.501        | 9.764     | 4.968       | 4.796        | 6.484    | 3.295       | 3.189        |
| 2012                 | 20.719    | 10.774      | 9.945        | 3.404       | 1.791       | 1.613        | 10.233    | 5.258       | 4.975        | 7.082    | 3.725       | 3.357        |
| 2011                 | 21.395    | 10.888      | 10.507       | 3.553       | 1.833       | 1.720        | 10.611    | 5.351       | 5.260        | 7.231    | 3.704       | 3.527        |
| 2010                 | 21.652    | 10.987      | 10.665       | 3.569       | 1.833       | 1.736        | 10.595    | 5.370       | 5.225        | 7.488    | 3.784       | 3.704        |
| 2009                 | 21.286    | 11.048      | 10.238       | 3.378       | 1.778       | 1.600        | 10.487    | 5.391       | 5.096        | 7.421    | 3.879       | 3.542        |
| 2008                 | 21.961    | 11.331      | 10.630       | 3.452       | 1.797       | 1.655        | 10.972    | 5.587       | 5.385        | 7.537    | 3.947       | 3.590        |
| 2007                 | 21.242    | 10.948      | 10.294       | 3.225       | 1.622       | 1.603        | 10.567    | 5.523       | 5.044        | 7.450    | 3.803       | 3.647        |
| 2006                 | 20.987    | 10.771      | 10.216       | 3.197       | 1.665       | 1.532        | 10.351    | 5.297       | 5.054        | 7.439    | 3.809       | 3.630        |
| 2005                 | 20.714    | 10.612      | 10.102       | 3.063       | 1.561       | 1.502        | 10.470    | 5.326       | 5.144        | 7.181    | 3.725       | 3.456        |
| 2004                 | 20.896    | 10.690      | 10.206       | 3.164       | 1.634       | 1.530        | 10.514    | 5.376       | 5.138        | 7.218    | 3.680       | 3.538        |
| 2003                 | 20.603    | 10.608      | 9.995        | 3.052       | 1.582       | 1.470        | 10.363    | 5.294       | 5.069        | 7.188    | 3.732       | 3.456        |
| 2002                 | 19.635    | 9.975       | 9.660        | 2.913       | 1.521       | 1.392        | 9.949     | 5.043       | 4.906        | 6.773    | 3.411       | 3.362        |

Data 2018ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Biztanleen udal-errodaren estatistika

# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 1. Eranskina - Datuak

### Espainia

Zirkulazio istripuak 2017 urtean

Beste urteetako datuak ikusi



|                                  |         |
|----------------------------------|---------|
| Biktimadun istripuak             | 102.233 |
| Hildakoak                        | 1.830   |
| Zauritu larriak (ospitaleratuak) | 9.546   |

Biztanleak 2017an

46.659.302 biztanle

Beste urteetako datuak ikusi



**Expansión / Datosmacro.com**

IPC PARO PRIMA DE RIESGO BONOS RATINGS DEUDA DEFICIT PIB HIPOTECAS TIPOS SALARIO SMI EPA BOL

| España - Población |          |            |            |            |
|--------------------|----------|------------|------------|------------|
| Fecha              | Densidad | Hombres    | Mujeres    | Población  |
| Junio 2018         | 92       | 22.914.088 | 23.818.952 | 46.733.038 |
| Diciembre 2017     | 92       | 22.881.882 | 23.778.565 | 46.660.447 |
| Junio 2017         | 92       | 22.829.748 | 23.703.121 | 46.532.869 |
| Diciembre 2016     | 92       | 22.834.227 | 23.692.812 | 46.527.039 |
| Junio 2016         | 92       | 22.805.230 | 23.644.544 | 46.449.874 |
| Diciembre 2015     | 92       | 22.807.484 | 23.632.635 | 46.440.099 |
| Junio 2015         | 92       | 22.800.864 | 23.609.285 | 46.410.149 |
| Diciembre 2014     | 92       | 22.828.546 | 23.623.019 | 46.449.565 |
| Junio 2014         | 92       | 22.840.091 | 23.615.032 | 46.455.123 |
| Diciembre 2013     | 92       | 22.877.481 | 23.634.738 | 46.512.199 |
| Junio 2013         | 92       | 22.933.750 | 23.659.486 | 46.593.236 |
| Diciembre 2012     | 92       | 23.017.758 | 23.710.132 | 46.727.890 |
| Junio 2012         | 92       | 23.055.722 | 23.710.682 | 46.766.403 |
| Diciembre 2011     | 93       | 23.099.009 | 23.719.207 | 46.818.216 |
| Junio 2011         | 92       | 23.073.274 | 23.662.983 | 46.736.257 |
| Diciembre 2010     | 92       | 23.049.476 | 23.617.698 | 46.667.175 |

**INE Instituto Nacional de Estadística**

01 El INE 03 Métodos y proyectos 05 Finanzas 06 Censo electoral

02 INEbase 04 Inmigración y empleo 06 Productos y servicios Sede electrónica

INEbase / Demogr... / Cifras d... / Cifras de población

| Población residente en España |                           |                     |   |
|-------------------------------|---------------------------|---------------------|---|
| Resultados                    | Valor                     | Variación semestral | Últimos datos   |
| Población total               | 1 46.733.038 <sup>1</sup> | 0,16 <sup>1</sup>   | Provisionales a 01/07/2018 y definitivos a 01/01/2018 Publicado: 13/12/2018 |
| Hombres                       | 1 22.914.086 <sup>1</sup> | 0,14 <sup>1</sup>   | Acceso directo a ...  |
| Mujeres                       | 1 23.818.952 <sup>1</sup> | 0,18 <sup>1</sup>   | Nota de prensa  |
| Extranjeros                   | 1 4.663.726 <sup>1</sup>  | 2,21 <sup>1</sup>   | Calendario de difusión  |

La suma de los datos desagregados puede diferir del total debido al redondeo  
1. Datos de 1 de julio de 2018 (Provisional)

La operación estadística Cifras de población proporciona una medición cuantitativa de la población residente en España, en cada comunidad autónoma, en cada provincia y en cada isla (en las provincias insulares), desagregada según características demográficas básicas, como el sexo, el año de nacimiento, la edad, la nacionalidad y el país de nacimiento. Se publica una serie poblacional desde el año 1971 que se obtiene de las estimaciones intercensales de la población, para el período 1971-2012, y de la propia operación Cifras de población, a partir de 2012.




# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 1. Eranskina - Datuak

### Europa

Zirkulazio istripuak 2017an


<https://es.statista.com/estadisticas/537023/tasa-de-mortalidad-en-carretera-en-paises-seleccionados-ue/>



Biztanleak 2017an

739.207.742 biztanle

<https://www.populationpyramid.net/es/europa/2017/>



# 1. jarduera – Ekidin daiteke

## 1. Eranskina - Datuak

### Mundua

Zirkulazio istripuak 2017an

<http://revista.dgt.es/es/noticias/internacional/2015/1020OMS-informe-siniestralidad-vial.shtml#.W9nt-yfOF-U>

<http://www.atlasdelasalud.org/indicador.aspx?idindicador=42&idbloque=4>

Biztanleak 2017an

7.515.284.153 biztanle

<https://www.populationpyramid.net/population-projections/africa+asia+europe+latin-america-and-the-caribbean+northern-america+oceania/>


MUNDUKO OSASUN ERAKUNDEAK (MOE) BIDE SEGURTASUNARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA (2015) ERE LUZATZEN DUGU. ETA 2017AN ERAKUNDE HONEK ARGITARATUTAKO AKTUALIZAZIOA ERE.

2015

Laburpena

**Egilea:** Munduko Osasun Erakundea

Trafiko-istripuek eragindako hildako pertsonen kopurua (1,25 miloi 2013an) egonkortzen hasia da, munduko biztanle eta ibilgailu kopurua hazi den arren. Izan ere, aurreko datuekin alderatuz munduko biztanlegoa %4a eta motordun ibilgailuak %16a hazi diren arren, trafiko-istripuz hildakoen kopurua egonkortu da. Honek, azken 3 urtetan martxan jarritako bide-segurtasun neurriak egokiak izan direla adieraztera ematen du, bizitzak salbatu dira.



2017

Lotura honetan 2015eko datuak (aurreko atalean azaltzen direnak) eta 2017ko datuak alderatzeko aukera izango da.

<http://www.who.int/features/factfiles/roadsafety/es/>

ARTIKULUA

Istripu-tasei buruzko eztabaida aberasteko baliagarria da hurrengo lotura. 2018ko otsailean **El País** egunkarian argitaratu zen artikulu bat da, **José Manuel Abad Liñán** kazetariak idatzitakoa.

TRAFIKO-ISTRIPUEN ZENBAKIAK HERRIALDE EZBERDINETAN. MAPA INTERAKTIBOA.

Lotura honek munduko mapa interaktibo baten Europaz gairik bide-istripuek eragindako hildakoen zenbatekoak ikusteko aukera emango digu.

<http://roadskillmap.com/>

## 2. jarduera – Oporretan goaz ●●●●

### Curriculumari dagokion helburua:

Balio-eskala bat finkatzea, eguneroko egoeretan nola jardun orientatzeko.

### Curriculumari dagozkion edukiak:


#### 1. multzoa. Gizarte-eremu osoaren edukiak.

Eztabaidak prestatzea eta burutzea inguruko edo munduko arazoez, gaurkotasuna duten gaiez eta dilema etikoez eta gizalegekoez. Horretarako, dauden jarrerak eta aukerak hartuko dira aintzat.

### Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

#### Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

4. maila (*Ahal den neurrian, arrisku handiko egoerak saihesten ditu*).



### Jardueraren deskribapena:

Jarduera hau egiteko dilema moral batez baliatu eta bi balio preziatu jarriko ditugu parez pare, gatazkan; segurtasuna eta puntualtasuna. Dilema moralak pertsonak bizitza errealean eman daitekeen egoera baten aurrean jartzen ditu, eta erabaki bat hartu beharko dute. Dilemaren metodoak erabakiak hartzerakoan zein mekanismo erabiltzen dugun eta emozioek erabakietan nola eragiten duten konturatzen lagunduko digu.

### Helburuak:

- Erabakiak hartzerakoan zeintzuk diren gure balioen lehentasunaz hausnartzea.
- Gure emozioak kudeatzeko moduak gure jokaerak baldintzatzen dituelaz jabetzea.

### Metodoak:

Dilema morala, taldeko eztabaida.

### Beharrezko baliabideak:

Dilema morala aurkezteko testua (1. Eranskina).  
Dilema morala egiteko lotura, orientabide metodologikoak (2. Eranskina).

## 2. jarduera – Oporretan goaz ●●●●

### Jardueraren garapena

- Hezitzaileak istorio bat azalduko du. Istorio honek dilema moral bat du tartean.
- Kontakizunaren bukaeran istorioak bi amaiera posible dituela azalduko du hezitzaileak.
- Gero parte-hartzaileei zutik jartzeko, begiak ixteko eta egoerarekin konektatzeko eskatuko die.
- Ondoren, hezitzaileak bi aukera posible daudela gogora arazten du:
  - 1.aukera: Abiadura handitu hegazkinera garaiz heltzeko.
  - 2.aukera: Ezarritako abiaduran jarraitu, hegazkina galtzeko arriskua izan arren.
- Parte-hartzaileak beraiek hartuko luketen erabakiaren arabera hezitzailearen eskuinaldean edo ezker aldean jarriko dira, bi bando sortuz.
- Bando bakoitza lau edo bost partaidetako taldetan banatuko da. Talde bakoitzak hartu duten erabakia zergatik hartu duten hausnartu beharko du. Talde bakoitzak bere taldeko ekarpenak idatziko dituen bozeramaile bat izango du.
- Bozeramaile bakoitzak bere taldean eztabaidatutakoa azalduko du, zein arrazoi dauden erabaki horren atzean. Hitza txandaka emango zaio bando bakoitzeko talde bakoitzari. Ezin da eztabaidatu partekatuko diren ekarpenen inguruan, entzun egin behar dira ekarpenak soilik.
- Bando bakoitzaren arrazoiak entzun ostean eztabaida zabalduko da. Hezitzaileak moderatzaile rola hartuko du, hitza ematen, bando batetik bestera salto egiten hitza ematerakoan. Fase honetan pertsonen iritziak azalderatuko dira.
- Dilema garatzen ari den bitartean, edozein taldez alda daiteke, zergatia azaldu gabe.
- Hezitzaileak, eztabaidan zehar agertuko diren balioak identifikatu ditu, eta beharrezkoa bada, bandoen arteko eztabaida animatzeko galdera batzuk planteatuko ditu.
- Eztabaida zabalik geratuko da. Ez dago soluzio zuzenik.

### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Pertsona talde baten balio desberdinak daude.
- Pertsona batek berak ere bere barnean gatazkan jar daitezkeen balioak izan ditzake, aurre egin beharreko egoeraren arabera.
- Kontrajartzen diren balio horiek beste edozein egoeratan, interferentzia gabe, pertsonarentzat balio ezin hobe eta desiragarriak izan daitezke.
- Balioak edozein erabaki hartzeko oinarriak dira.
- Erabakiak jokabide ezberdinak eragiten dituzte eta pertsona desberdinen jokabideak ez dute zertan bat egin.
- Besteen erabakiek gugan sentazio eta emozioak eragin ditzakete, gure jarrera aldatuz.

## 2. jarduera – Oporretan goaz ●●●●

### 1. Eranskina Dilema moralala

#### Oporretan goaz

Sandrak 19 urte ditu eta Luciak 20. Hiritik atera berri dira Sandraren aitaren kotxean. Sandrak duela hilabete batzuk atera zuen gidabaimena eta bere aitak oso ondo gidatzen duela esaten du eta horregatik kotxea utzi dio hiritik 100 km-tara dagoen aireportura joateko.

Oso pozik daude. Italiara doaz lagun taldetxo bat eta beraien hegazkina 11,45etan irteten da. 11etan ontziratu behar dira, maleta gabe eta ontziratzeko txartelekina doaz eta. Hiritik 9,30etan irtetzekotan geratu dira. Lasai egin nahi dute bidaia, ezustekoren bat gertatzen bada ere.

Autobidetik doaz eta hiritik 30 km-tara gutxi gora-behera aurreko autoak gelditu daudela konturatzen dira. "Ze arraroa! Hau ez da normala". Sandrak pentsatzen du agian istripuren bat izango zela, baina segituan hasiko direla ibilgailuak berriz ere martxan. Autobide zabala da, hiru errei ditu eta ez dago zertan arazorik izan.

Musika jarri dute. 15 minutu igaro dira eta oraindik ez dira zeuden lekutik mugitu eta denbora badoa aurrera. Lucia urduri jartzen hasi da. Autobidetik irten beharko direla esan du, ez direla garaiz helduko aireportura. Sandrak ez

arduratzeko esan dio Luciari, oraindik badutela denbora. 10,20 dira jadanik baina autobidetik aireporturako sarbide ona dago.

Irratia piztu dute zer gertatzen den jakiteko. Ene bada! Bi kamioik istripua izan omen dute, goizeko 8retan izan omen da istripua eta oraindik 5 km falta zaizkie istripu-gunera heltzeko. Gutxi falta den arren oraindik ez dituztela kamioiak autobidetik kendu dio irratia. Luciak autobidetik irtetzeko esaten du behin eta berriz, baina Sandrak ez daki autobidetik kanpo nola heldu aireportura, beraz, autobidean geratu beharko direla erantzuten dio Luciari, beste errepideak ere autoz josiak daudela eta ez direla garaiz helduko irteten badira.

Pixkanaka hasi da auto ilara mugitzen, baina ez direla helduko uste dute, urte guztian zehar planifikatzen ari diren bidaia galduko dutela. Luciak esaten dio Sandrari autobidea zabaltzen badute ziztu bizian joan beharko direla, baina Sandrak badaki abiaduragatik isuna jartzen badiote bere aitak ez diola autoa gehiago utziko. Ez du horrelakorik gertatzerik nahi, badaki aitaren konfiantza duela eta ez du galdu nahi.

Azkenik 10,45etan zabaldu dute autobidea. Geratzen diren kilometroak kontuan izanda 150-160 km/h-tara joan beharko direla ohartzen dira, eta agian hartuko dute hegazkina, baina segurtasun abiaduran zirkulatuz gero hegazkina galdu dezakete, hegaldia ez bada berandutzen behintzat.

Zer egingo du Sandrak une horretan?



## 2. jarduera – Oporretan goaz ●●●●

### 2. Eranskina Dilema morala egiteko orientazioak

Lotura honen bidez dilema baten garapena ikus daiteke, dilemaren jarduera gauzatzeko orientabide metodologikoak azaltzen dira bertan. Dilema aplikatzen duzun lehen aldia bada gidatza hartu daiteke.

<https://www.youtube.com/watch?v=6DqUMFQuOO8>



# 3. jarduera – Gure hiria, gure bizigunea ●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Gizartea eraikitzeko kontzientzia eta parte-hartze arduratsua bultzatzea.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 9. multzoa. Klima-aldaketa eta aurre egiteko neurriak. .

Mugikortasun iraunkorreko plan bat egitea zure herri edo hirirako, garraio-publikoa bultzatuz, eta bizikleta moduko garraio-bide ez-kutsatzaileak erabiliz.

## Mugikortasun segururako

### gaitasunekin lotura:

### Ingurunearen azterketa.

4. maila (Segurtasunean oinarritutako erabaki-irizpideak barneratuta ditu).

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honen bidez elkarbizitza eta biztanleen bizi-kalitate esparruan pertsona bakoitzak segurtasunaren gainean duen erantzukizunari buruzko hausnarketa egingo du parte-hartzaileak.

## Helburuak:


- Parte-hartzaileak aurrerapen gaitasuna izan dezala eta prebentzio mekanismoak garatu ditzala elkarbizitza arazoan aurrean eta herri edo hiri baten mugitzeko egon daitezkeen arazoan aurrean.

## Metodoak:

Lana talde txikian, eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Auzoaren plano bat -eskola edo formazio zentroarena bereziki-, kolorezko errotuladoreak, orri zuriak eta koloretakoak, guraizeak, papelografo orriak edo horma-irudia egiteko enbalatze-papera.



# 3. jarduera – Gure hiria, gure bizigunea ●●

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak herri edo hiriko guneez egun bat aukeratuko du, parte-hartzaile guztiak ezagutzen dutena. Formazio-zentroko ingurunea ere izan daiteke aukeratutakoa. Taldeari guneez hau plano bidez aurkeztuko dio.
- Gero lau edo bost pertsonatako taldeak egingo ditu. Talde bakoitzari plano eta marrazteko materialak emango dizkio: kolorezko errotuladoreak, koloretako orriak, guraizeak, cello-a, papelografo orriak edo enbalatze-papera...
- Ondoren, talde bakoitzari ondoko argibideak dituen fitxa bat luzatuko dio:
  - Helburua: luzatutako planoan dagoen espazioan bide-segurtasuna hobetzea.
  - Helburu hori lortzeko kontuan izango ditugunak: garraio publiko eta pribatuaren arazoak; oinezkoentzat erreserbatu beharreko espazioak -mugitzeko eta pasiatzeko-; haur, gazte eta pertsona nagusiek jolasteko edo aisialdirako behar duten espazioa; airearen kutsaduraren inpaktua, kutsadura akustikoa eta beste zenbait elementu, hiritarren bizi-kalitateari eragiten diotenak.
  - Talde bakoitzak hurrengo elementuak identifikatu beharko ditu planoetan: kaleak, eraikinak, jarduerak (komertzialak, tailerrak, eskolak, osasun zentroak...), ingurunean

ibiltzen diren ibilgailuak, bertatik zirkulatzen duten biztanleen ezaugarriak, iturriak, plazak, guneez berdeak, oztopoak...

- Ondoren, eskura dituzten baliabideak erabiliz, bizi-kalitatea hobetzeko beharrezko elementuak marraztuko dituzte (seinale berriak, norabide-seinaleak, bizikleta eta patinenzako erreiak, autobus geralekuak, oinezkoen kaleak etab.)
- Hezitzaileak taldeei lan banaketa bat egiteko eskatuko die hobetzeko `lana gauzatu ahal izateko (diseinua, ingeniaria, segurtasuna...).
- Taldeek egin beharreko lana egin ondoren, osatutako proiektuak elkar-trukatuko dituzte.
- Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du. Bozeramaile honek talde handiaren aurrean beraiek egindako analisia partekatuko du, zein ondorio ateratu dituzten eta zein hobekuntza proposatu.
- Azkenik, hezitzaileak egindako lanari buruz ondorioak eta hausnarketak partekatzeko eztabaida hasiko du:
  - *Nola antolatu diren.*
  - *Zein zailtasun izan dituzten*
  - *Talde kideen artean izandako desberdintasunak eta nola kudeatu dituzten.*

- *Beraien proiektua ebaluatu duen komisioren ekarpenak nola jasotuzten.*
- *Jardueraren ondoren zer ikaspen jasotuzten.*

Hezitzaileak partekatutako gauza esanguratsuenak papelografo edo horma-irudian jasoko ditu, proiektu bakoitzeko argazkiaz aterako ditu, eta jarduera bukatzeko laburpena egingo du.

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Erosotasuna eta ingurumenaren arteko oreka ezartzearen beharra.
- Proiektu edo egitasmo bat abian jartzean hainbat ikuspuntu ezberdin uztartzen dira. Lanbide bakoitzak bere ikuspuntua du, bizilagun bakoitzak, herriko bisitariak, herri edo espazio bati buruz ikuspuntuak ezberdinak dira erabiltzailearen arabera.
- Interes komuna errespetatzea, nahiz eta espazio publikoan azaltzen diren beste interes batzuen desberdina izan.
- Parte hartzearen garrantzia balioestea, eta iradokizunak zehaztu eta ardura duten erakundeek luzatzea.



# 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Autoestimua eta gizarte-trebetasunak garatuz gizarteko problemak konpontzeko elkarrizketa eta akordioa bultzatzea; erabakiak era autonomoan prestatzea eta hartzea, egoera pertsonaletan eta taldean moldatzeko, eta beste pertsonekin edonork bere kasa bizi-proiektuak eraikitzeko.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 13. multzoa. Arte-hezkuntza.

- Argazkilaritza, collagea, komikia eta kartelaren bidez irudiak sortzea eta manipulatzeko.
- Plastikazko, ikusizko eta entzunezko erreferenteak ulertzea, jasotzea eta interpretatzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

2. maila (*Badaki emozioek bide-portaeran nahiz gainerako pertsonengan eragina izan dezaketela, arriskua sortuz*).

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honek pertsonak norberaren emozioekin jarriko ditu konexioan. Halaber, frogatuko da emozioek beraien jarrera baldintzatzen dutela eta mugikortasun egoeratan arrisku-jokaera larriekin lotura zuzena dutela.

Proposatutako jarduera honetan zera landu nahi da; emozioak kudeatzearen garrantzia eta mugikortasunari dagozkion egoera eta erabaketan jokaera seguruak mantentzea ezinbestekoa dela norberaren eta beste pertsonen segurtasunerako.



## Helburuak:

- Mugikortasun egoeretan pertsonak denbora tarte txikian -segundotan- hartzen dituztela erabakiak ohartzea. Jokaera ezberdinak izaten ditugula erabaki horien ondorioz, eta bizipen horretan sortutako emozioek garrantzia handia dutela..
- Mugikortasun egoeretan izaten ditugun jokaera automatikoak aztertzea, eta jokaera horiek bizitzan zehar barneratzen ditugun sineste, balio eta ikaspenen arabera konturatzea.
- Sentitzen ditugun emozioak identifikatu, interpretatu eta onartzea, eta emozioek pertsonen erreakzio espontaneotan izaten dituzten eraginaz ohartzea.
- Emozioak kudeatuz arrisku larriko jokaerak ekidin daitezkeela kontzientzia hartzea.

## Metodoak:

Banakako lana, eztabaida, lana talde txikian.

## Beharrezko baliabideak:

Emozio- espresioen irudi desberdinekin txartelak, papelografo orriak edo horma-irudia egiteko enbalatze-papera, Bluetack edo zinta itsasgarria.

# 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak parte-hartzaile bakoitzari 1. eranskinean azaltzen diren bi edo hiru txartel emango dizkio.
- Gero eskatuko die txarteletako emozioak zeintzu diren identifikatzeko.
- Parte-hartzaile bakoitzak, bakarka, zera imajinatu eta idazteko eskatuko die hezitzaileak:
  - Zein esaldi pentsatzen egon daitekeen txarteletako pertsona. Adibidez; *Gaur egun zoragarria da, Den-denak hilko nituzke edo Munduko pertsona zorigaiztokoena naiz.*
  - Zein jokaera izan dezakeen txarteletako pertsonak oinezko, gidari edo bidaiari bezala. Adibidez, *haserre dagoen pertsona bat edozein txikikeriagatik klaxona jotzen ibil daiteke edo agresiboki gidatzen.*
- Parte-hartzaileek egindako ariketa azalduko dute. Irudiko emozioa aipatu eta egoera emozional horretan eman daitezkeen bide-jokaerak azalduko dituzte.

- Esandakoarekin mural bat osotuko da. Mural honetan hiru zutabe marraztuko dira:

| Emozioa | Zer esaten du pertsonaiak | Emozioak eragindako bide-jokaerak (oinezko, gidari edo bidaiaria) |
|---------|---------------------------|---|
|         |                           |   |
|         |                           |   |
|         |                           |   |
|         |                           |   |

- Horma-irudia sortzen den bitartean egindako ekarpen eta ondorioei buruz eztabaidatuko da. Bideko egoeretan sentitzen dena esaten denarekin lotuko da. Hezitzaileak mugikortasun-egoera ezberdinak kontuan hartuz animatuko ditu parte-hartzaileak: auto bat gidatzea, motor bat edo bizikleta bat gidatzea, patinetez mugitzea, oinez ibiltzea, etab.
- Ondoren bi edo hiru pertsonatako taldeak osotuko dira eta hezitzaileak taldekideei zera eskatuko die:
  - Lema edo eslogan bat asmatzeko, pertsonak egoera emozionaletan daudenean dituzten jarrerei buruz kontzientzia har dezaten.
- Bukatzeko, taldekideek egindako lanketa talde osoarekin partekatu dute.






### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:





- Emozioek hartzen diren erabakietan duten pisuaz jabetzea.
- Emozioek bide-jokaeretan nola eragin dezaketen jakitea.
- Mugikortasun egoeratan jokaera seguruak aukeratzeko egoera emozionalak kudeatzeko beharraz jabetzea.

# 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●


## 1. Eranskina Emozioak







## 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●



## 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●●●



## 4. jarduera – Zer egiten dugu emozioekin? ●●●●●●



# 5. jarduera – Denon artean erabakitzea ●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Autoestimua eta gizarte-trebetasunak garatuz gizarteko problemak konpontzeko elkarrizketa eta akordioa bultzatzea; erabakiak era autonomoan prestatzea eta hartzea, egoera pertsonaletan eta taldean moldatzeko, eta beste pertsonekin edonork bere kasa bizi-proiektuak eraikitzeko.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 12. multzoa. Generoa eta gizarte-rolak.

Familiaren, eskolaren, publizitatearen eta komunikabideen bitartez rolak eta balioak zabaltzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura: :

### Taldeko presioarekiko erresistentzia.

3. maila (*Baztertua izateari dion beldurra eta taldean onartua izan beharra antzematen ditu, baina egoera horiek kudeatzeko eta portaera seguru bat jarraitzeko gai da*).

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honen bidez parte-hartzaileek gai honetaz kontzientzia hartzea landuko da; beraien printzipioak, beraien erabakiak eta taldeko presioa nola kudeatzen dituzten. Bestetik, genero desberdintasunak dakartzan berezitasunei arreta jartzearen garrantzia ere landuko da.

Hezitzaileak parte-hartzaileei talde baten edo kultura baten presioarekiko dependentziak suposatuz dezakeen arriskuari buruzko kontzientzia hartzen lagunduko die. Beharrezkoa da identifikatzea egoera horiek non segurtasunaren balioa erreferentzia-taldearen, senideen, lagunaren edo norberaren generoaren onespeneren gainetik dauden.

## Helburuak:


- Berehalakotasuna eta presio emozionalak bultzatuta erabakiak hartzea ekidin eta ardurarekin jokatzeko erabakiak hartzerakoan.
- Jokaerak alde batetik, eta genero bizipen pertsonala eta bide segurtasuna bestetik, lotzea.

## Metodoak:

Dramatizazioa, lana talde txikian, eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Dramatizazioa egiteko argibideak, antzetzutakoak grabatzeko mugikor bat, ordenagailua, proiektorea eta soinu-aparatua.



# 5. jarduera – Denon artean erabakitzea ●●●

## Jardueraren garapena:

- Dramatizazio ariketa bat egiteko bost boluntario eskatuko ditu hezitzaileak. Garrantzitsua da boluntario hauen artean emakumeak eta gizonak egotea.
- Bost pertsona hauei dramatizazioa burutzeko 1. eranskineko argibideak emango dizkie.
- Taldekideak gelatik kanpo joango dira. Bost minutu emango zaizkie prestaketa lanetarako.
- Bitartean hezitzaileak gelan geratuko diren beste parte-hartzaileei zer egin beharko duten azalduko die.
  - Gertatuko dena adi-adi begiratzea eta aipagarria iruditzen zaien aspekturen bat badago, oharrak hartzea.
  - Behaketa antzeztutako pertsonaien ezaugarrietan zentratuko da; pertsonaia bakoitzak pizten dituen emozioetan eta beraien erabakien atzean dauden balioetan.
  - Beraien generoagatik edo ezaugarriengatik eduki daitezkeen aurreiritziak, eta aurreiritzi hauek bide-segurtasunean nola eragiten duten identifikatzea.
  - Erabaki alternatiboak pentsatzea, antzezpeneren ostean proposatu eta eztabaidatzeko.
- Bi edo hiru minututako antzezpena egingo da. Gomendagarria da antzezpena grabatzea eta egin ondoren pare bat aldiz ikustea.
- Ondoren eztabaida zabalduko da. Eztabaida talde osoarekin egingo da, antzezpena egin duten bost pertsonak barne.
- Eztabaidari bizia emateko hezitzaileak ondoko galderak bota ditzake:
  - *Zer gertatu da lagun talde honetan?*
  - *Zuk zer egingo zenuke?*
  - *Zein aurreiritzi azaldu dira?*
  - *Aurreiritzi hauek kalean edo errepidean izaten diren jokaerekin bat datoz?*
  - *Emakume eta gizonezkoen erantzunen artean ba al da alderik?*
- Jarduera osotzeko taldekide bakoitzak hausnarketa pertsonala idazteko eskatuko du hezitzaileak.
- Hezitzaileak banakako hausnarketak partekatzea animatuko ditu parte-hartzaileak. Modu honetan besteen ikuspegi eta jarreretatik ikasteko aukera izango da.

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Segurtasunari eta prebentzioari ematen diogun balioa zein den eta zer egiten dugun kontraesanean dagoenean gure erreferentzia-taldeak ematen dion balioarekin.
- Norberaren eta besteen segurtasuna arriskuan jartzen denean zein baliabide jartzen dugun martxan taldearen presioaren aurrean amore ez emateko.
- Mugikortasun egoera baten aurrean gizon-emakumeen artean zein ezberdintasun dagoen, balio eta jokaerei dagokienez.



# 5. jarduera – Denon artean erabakitzea ●●●


## 1. Eranskina Dramatizazioa egiteko argibideak

Antzezpena egiteko estimatutako denbora, 2-3 minututakoa da.

Bost pertsona dira taldean, eta afari batetik irten eta etxera bueltatu behar dira.



Autoaren gidariak alkohola edan du. Beste lau pertsonek ez dute gidabaimenik.



Afaldu duten jantetxea hiritik urrun dago, landa-eremu baten, eta gaueko ordu horretan ez dago autobusik.




Aukera bat dago, bi taxiri deitzea beraien bila joateko. Oso garestia da aukera hau eta beraietako bi diruz larri dabilta urteko sasoi honetan.




Taldeko batek "ez da ezer gertatzen, autoan goaz eta kito" esaten du irmoki. Taldekideek erabaki beharko dute nor izango den hori esango duen pertsona.



Beste lau taldekideek besteekin ezer adostu gabe bakoitzak egokia iruditzen zaien moduan jokatuko dute.



# Komunikazio- eremua



## 6. jarduera – Zereginak banan-banan! ●●●●

### Curriculumari dagokion helburua:

Hizkuntzak funtzio bikoitza duelaz jabetzea: indibiduala eta soziala. Indibiduala, zeren pentsatzen, jakintza eraldatzen, norberaren jarduera arautzen eta espresatzen laguntzen duen tresna baita. Soziala, gizarteak zabaldu eta mantentzen baitu, eta gainera, giza taldeak eraikitzeko eta garatzeko orduan hizkuntza baita ardatza eta euskarria.

### Curriculumari dagozkion edukiak:

#### 1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

Gaurkotasuna duten testuak entzutea eta ulertzea (albisteak, eztabaidak, dokumentalak, elkarrizketak, kantuak, publizitate-iragarkiak, kirol-iruzkinak, hitzaldiak...).

#### 2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

Publizitateko eta komunikabide inprimatu eta digitaletako testuak ulertzea (izenburuak, argazki-oinak, albistea, zerrenda komikoak, elkarrizketa, erreportajea, iritzi-artikulua, publizitate-iragarkiak...), kontuan hartuz egunkariaren egitura (atalak eta generoak) eta elementu paratestualak.

### Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

#### Arreta.

2. maila (*Badaki zein garrantzitsua den arreta mugikortasun seguruan*).



### Jardueraren deskribapena:

Jarduera honetan parte-hartzaileak zenbait ekintza aldi berean egin nahi izateak dakartzan arriskuei buruz hausnartzeko aukera izango du. Jolas bat eta egunkari bateko artikulu bat erabiliko dira hausnarketarako, eta agerian utziko da aldi berean hainbat gauza egitean arreta ezin dela fokalizatu. Mugikortasun egoeretan, oinezkoak edo gidariak zirkulatzeaz gain arreta behar duten hainbat ekintza gehiago egiten baditu, bere segurtasunean edo beste pertsona batzuen segurtasunean eragin dezake.

### Helburuak:

- Arriskuaren pertzepzioa eta arreta maila zuzenki proportzionalak direla konturatzea.
- Joan-etorriak egiteko behar dugun arreta mailari eragiten dioten ohiturak identifikatzea.

### Metodoak:

Jolasa, talde-lana, eztabaida.

### Beharrezko baliabideak:

Aulkiak. Taldekideak beste aulki.

Pilota bat.

Papelografo edo arbela.

## 6. jarduera – Zereginak banan-banan! ●●●●


### Jardueraren garapena:

Hezitzailea eta bere taldekideak zirkuluan eseriko dira. Hezitzaileak galdera hau egingo du:

#### **Zuen ustez aldi berean gauza bat baino gehiago egin dezakezue?**

Galdera hau eztabaidaren abiapuntutzat hartuta, aldi berean gauzak egiteko ahalmenari buruzko iritzi, ideia eta pertzepzio ezberdinak azalduko dira, eta tartean aldi berean egindako gauzen kalitatea ere aipatuko da.

Ondoren hezitzaileak esango du jolas bat egingo dutela zeregin bat baino gehiago aldi berean egin dezakegun edo ez frogatzeko.



### **Jolaserako argibideak:**

- Pertsona bat zutitu eta zirkuluaren erdian jarriko da. Bere aulkia hutsik geratuko da.
- Zutik dagoen pertsona horrek berriz ere bere aulkian eseri nahiko du eta horregatik aulkirantz joango da pausu batzuk emanda.
- Bitartean, aulki hutsaren ezkerrean eserita dagoen pertsonak bere eskuineko eskuarekin aulki hutsa ukituko du eta taldekide baten izena esango du. Edozein pertsona izendatu dezake, aulki hutsaren eskuinaldean eserita dagoen pertsona izan ezik.
- Pertsona baten izena esaten duen unean aulki hutsa izendatutako pertsonarentzat gordetzen da. Izendatutako pertsona zutitu eta erreserbatutako aulkirantz joango da lasai-lasai.
- Aldi berean zutik zegoen pertsona hutsik gelditu den aulkirantz joango da.
- Prozesua errepikatuko da.
- Izena eman behar duen pertsonak ez badu izenik esaten edo okerreko izen bat aipatzen badu, zutik zegoena aulki hutsean eseri daiteke eta erratu dena zutitu beharko da.
- Jolasak modu horretan jarraituko du.
- Jolasa oso erraza da. Arreta jartzea besterik ez da behar. Hasieran parte-hartzaileak asko erratzen dira, baina pixkanaka dinamika barneratzen hasiko dira. Azken hau gertatzean hezitzaileak jolasa eten eta zeregin berri bat ezarriko du. Pilota bat hartuko du eta taldekideei era aleatorioan zirkuluan zehar pilota pasatzeko eskatuko die.
- Pilota lurrera erortzen bada, edozeinek jaso dezakete eta berriro taldekideren bati jaurti. Pilota erortzeak ez du ondoriorik jolasean. Zera gertatuko da: parte-hartzaileek arreta galduko dute eta erratzen hasiko dira.
- Hezitzaileak jolasa bertan behera utziko du eta hirugarren zeregin bat gehituko du. Partehartzaileei zera eskatuko die: aurreko zereginak egiten dituzten bitartean (pertsonak izendatu eta pilota pasatzea) zenbatzen hasteko, 1 zenbakitik hasita. Edozein pertsona hasi daiteke zenbatzen eta besteak zenbatzen jarraituko dute: 2,3,4... Zenbaketa gelditzen bada, edozein pertsona hasi daiteke berriro zenbatzen, 1 zenbakitik hasita.
- Taldeak ez du lortuko hiru zeregin aldi berean egitea eta jolasa kaosa bilakatuko da.
- Momentu honetan hezitzaileak jolasa bertan behera utziko du eta taldeka jolasari buruz hitz egingo dute.

## 6. jarduera – Zereginak banan-banan! ●●●●

- Ondoren hezitzaileak *El Pais* egunkariko artikulua irakurtzeko eskatuko die parte-hartzaileei (argazkiaren lotura jarraitu artikulua irakurtzeko). Talde txikiak eratuko dira, artikulua irakurri eta galdera hauei erantzuteko:
  - Zer iritzi duzu artikuluan esaten denari buruz?
  - Egia dio zure esperientziaren arabera?
  - Artikulua dioena jolasean gertatutakoarekin lotu dezakegu?
- Artikulua irakurri ondoren eztabaidatutakoa aipatuko du talde bakoitzak.
- Iritzi batzuen ondoren hezitzaileak mugikortasunera bideratuko du eztabaida: auto bat gidatzea, bizikletan, patinetean, oinez ibiltzea, eta aldi berean beste zerbaitekin eginez. Adibidez, mugikorra begiratzea, betaurrekoak bilatzea, eztabaida bizi bat izatea.
- Eztabaida dinamizatuz batera hezitzaileak, parte-hartzaileen laguntzarekin, ohiko distraktore edo arreta-ezak zerrendatuko ditu (mugikortasun segurua eragozten duten ohikoenak 1 eranskinean bildu ditugu).



<https://www.elpais.com.uy/vida-actual/efectos-multitarea.html>

### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Espazio publikoan joan-etorriak egiteko gure arreta osoa beharrezkoa da. Mugitzen ari garen bitartean gure arreta beste gauza batzuetan ere izaten badugu gure segurtasuna eta besteena arriskuan jar dezakegu.
- Arreta-eza eragiten duten distraktore batzuk ohikoak eta arriskutsuak dira joan-etorrietan: txateatzea, elkarrizketa sakonak edukitzea, atzeko eserlekuetan dauden pertsonekin hitz egiteko biratzea...
- Gure arreta maila gutxitzen dute nekeak eta alkohola edo beste substantzia batzuk kontsumitzeak (botikak eta drogak adibidez).
- Egoera emozional batzuek -haserrea, euforia...- gure arreta eragozten dute.
- Arreta galtzearen arrazoia edozein dela ere, arreta-eza istripu hilgarrien edo zauritu larriak eragiten dituzten istripuen arrazoi nagusienetakoa da.

## 6. jarduera – Zereginak banan-banan! ●●●●

### 1. Eranskina

Mugikortasun segurua eragozten duten arreta-etak

Mugikorra begiratzea

Mezuak bidaltzea

Txateatzea

Atzeko eserlekuan dagoen pertsonari begiratzea

Adin txikikoei jaramon egitea

Gauzaren bat bilatzea

GPS edo beste bilatzaile baten ibilbide bat bilatzea

Erretzea

Elkarrizketa zailak izatea

Mugikorretik hitzegitea

Makillatzea, orraztea...

Jatea edo edatea

Maskotari jaramon egitea

Zirkulatzeko ari garela ezbehar edo istripu bat begiratzea

Musika oso altu edo aurikularrekin entzutea

Galtzada ez den beste norabaitera begiratzea

Irakurtzea

Irratiko programaren bat bilatzea

# 7. jarduera – Emozioa eta erantzukizuna ●●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko, banakako edo taldeko jardueretan.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ahozko testuen gaiak eta ideia nagusiez ohartzea.
- Ahozko testuen edukiaz jabetzea hainbat bide erabiliz, eta nahi diren helburuetarako erabiltzea.
- Komunikazio-trukeetan – eta batik bat taldeko ikasketa-egoeretan – era aktiboan, errespetuz eta lagunduz parte hartzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Arreta.

4. maila (*Arreta bere segurtasunaren zerbitzurako tresna gisa erabili ohi du.*)

## Jardueraren deskribapena:

Jardueran honetan parte-hartzaileak egunerokotasunean eman daitekeen egoera baten aurrean jarriko ditugu, eta egoera horrek norberarentzat garrantzitsuak diren balioak gatazkan jarriko ditu. Bidaia baten gidariak bi premia izango ditu aldi berean: gai garrantzitsu bati buruz hitz egiteko beharra alde batetik, eta bestetik helmugara heldu arte arreta ez galtzeko isilik egotea.

Dilemaren metodoak erabakiak hartzerakoan zein mekanismo erabiltzen dugun eta emozioek erabaketan nola eragiten duten konturatzen lagunduko digu.

## Helburuak:

- Gidari baten laguntzaile bezala bidaiatzean gidariaren arreta galarazteak dakarren arriskuaz kontzientzia hartzea.

## Metodoak:

Dilema morala, taldeko eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Dilema morala: *Emozioa eta erantzukizuna. Bikote ederra.* (1. Eranskina)

Dilema morala egiteko orientazioak. (2. Eranskina)



# 7. jarduera – Emozioa eta erantzukizuna ●●●●

## Jardueraren garapena:


- Hezitzaileak istorio bat azalduko du. Istorio honek dilema moral bat du tartean.
- Kontakizunaren bukaeran istorioak bi amaiera posible dituela azalduko du hezitzaileak.
- Gero parte-hartzaileei zutik jartzeko, begiak ixteko eta egoerarekin konektatzeko eskatuko die.
- Ondoren, hezitzaileak bi aukera posible daudela gogora arazten du:
  - 1.aukera: Hitz egitea eta nola sentitzen den adieraztea.
  - 2.aukera: Isilean, etxera heldu arte tentsioari eustea
- Parte-hartzaileak beraiek hartuko luketen erabakiaren arabera hezitzailearen eskuinaldean edo ezker aldean jarriko dira, bi bando sortuz.
- Bando bakoitza lau edo bost partaidetako taldetan banatuko da. Talde bakoitzak hartu duten erabakia zergatik hartu duten hausnartu beharko du. Talde bakoitzak bere taldeko ekarpenak idatziko dituen bozeramaile bat izango du.
- Bozeramaile bakoitzak bere taldean eztabaidatutakoa azalduko du, zein arrazoi dauden erabaki horren atzean. Hitz txandaka emango zaio bando bakoitzeko talde bakoitzari. Ezin da eztabaidatu partekatuko diren ekarpenen inguruan, entzun egin behar dira ekarpenak soilik.
- Bando bakoitzaren arrazoiak entzun ostean eztabaida zabalduko da. Hezitzaileak moderatzaile rola hartuko du, hitza ematen, bando batetik bestera salto egiten hitza ematerakoan. Fase honetan pertsonen iritziak azalderatuko dira.
- Dilema garatzen ari den bitartean, edozein taldez alda daiteke, zergatia azaldu gabe.
- Hezitzaileak, eztabaidan zehar agertuko diren balioak identifikatu ditu, eta beharrezkoa bada, bandoen arteko eztabaida animatzeko galdera batzuk planteatuko ditu.
- Eztabaida zabalik geratuko da. Ez dago soluzio zuzenik.



## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Joan-etorrietan arreta osoa eta fokalizatua mantentzea beharrezkoa da.
- Arreta zatitua arriskutsua da, bide-segurtasun esparruan batez ere.
- Nekeak, alkohol kontsumoak eta beste droga eta botika batzuen kontsumoak ere gure arretan eragina dute
- Gure arreta arrazoi emozionalengatik ere murriztu daiteke.
- Arreta-galtzearen arrazoiak edozein izanik ere, arreta gutxitzea da istripuak eragiten dituzten arrazoi nagusietako bat.





# 7. jarduera – Emozioa eta erantzukizuna ●●●●

## 1. Eranskina Dilema moralak

### Emozioa eta erantzukizuna. Bikote ederra.

Oscar 21 urteko mutil bat da. Beste hiri batera joan da bizitzera, profesionalizazio-ikastaro bat egiteko.

Hiriz aldatzea oso gogorra egin zaio Oscarri, bere lagunei eta jaioterriari agur esatea gogorra izan da, baina pertsona desberdinak ezagutzeko aukera ederra duela sentitzen du, lagun berriak egiteko aukera.

Pozik dago bere etxe berrian. Ikasleen pisu bat da eta gela on bat dauka.

Ikastetxeari dagokionez, handia da, jende asko ari da bertan ikasten eta badirudi leku ona dela.

Ikasturteko lehen egunean ikasgelan sartu eta lekuz-kanpo sentitu zen. Bere ikaskideak beraien artean zebiltzan berriketan eta inork ez zion kasurik egiten.

Egunak pasa ahala, bera ikasgelan sartu eta Bernardoren ondoan esertzen zen. Izan ere, Bernardo izan zen estatusunean laguntza eskaini zion pertsona bakarra. Bernardo oso mutil arduratsua eta barnerakoia zen, eta lagunak egiteko zailtasunak zituen.

Bernardoren esanetan, zaila da zenbait talderekin harremana izatea, oso zaila omen da talde horietan onartua izatea.

Oskarrek, baina, jendea ezagutzea nahi zuen. Berak ez zuen lagun bakarrarekin konformatu nahi.

Egun baten, bokata batzuk jaten eta beraien artean txantxetan zebilen talde batengana hurbildu zen.

Hasiera baten isilik, entzuten egon zen soilik. Baina, pixkanaka galderaren bat edo aipamen txikiren bat egiteko ausardia hartu zuen.

Neska-mutilek mesfidantzaz begiratzen zioten, neska batek gau hartan zegoen festa batera joateko gonbidatu zuen arte: Oso ondo dagoen diskoteka batera goaz. 80 km-tara dag.

Badoaz ba, Oscar, Bernardo, gonbidatu zuen neska hura eta bikote bat, bikoteko mutilaren autoan.

Oso gau dibertigarria izan zen. Azkenik lagunak izaten hasia zela sentitu zuen, beraien irten eta bitzita soziala izaten.

Etxera itzultzeko garaia heltzean, autoaren jabea mozkorturik dago. Oscarrek ez du edaten alkoholak buruko mina eragiten diolako eta gidatzeko eskaini du bere burua.

Bikotea eta Bernardo atzeko eserlekuetan doaz. 5 km-tara Oscarrek zurrunga batzuk aditzen ditu, baina ez daki hiruetako nor den zurrungaka ari dena.

Aurrean berarekin doan neska ez dago lotan, alderantziz, hitz egiteko gogo bizia du eta bere bizimodua ari zaio kontatzen. Oskarrek ez dio arreta larregi jartzen

neskak dioenari, errepidean kontzentratzen saiatzen da. Gau iluna da eta logura eta nekeak bere arreta gutxitzen dute.

Horrelako baten, neska Bernardotaz hitz egiten ari dela ohartu da. Bernardo inozoa dela dio, oso gutxi hitz egiten duela eta berarekin zebilelako baztertu zutela Oscar.

Oscar oso deseroso sentitzen da. Bernardo atzean dago eta berari buruz gaizki esaka dabil neska. Lotan ote dago? Baietz ematen du, ez du erantzuten ezta bere iritzia ematen, baina baliteke entzuten egotea eta lo egiten dagoenaren plantak egiten...

Oso deseroso sentitzen da, bere gidatzeko gaitasuna larriki kaltetzen hasia da. Jadanik ezin du gehiago. Edo irmoki erreakzionatzen du eta neska isilarazi edo egoera hori jasan eta ahal duen bezala helmugara heldu. Ibilgailua gelditzeko aitzakia bat asmatu nahian dabil, baina errepidea estua da eta bihurtuz josia... Neska isilaraziko balu... bere lagunarekin konfiantza lortuko luke, baina berriz ere lagun talde berria galdu... Ez badu ezer esaten... errepidean inolako arretarik jarri gabe gidatuko du. Zenbat denbora jarrai dezake horrela? Zer gerta daiteke?

Zer egingo du Oscarrek?

Neskari isiltzeko esan edo etxera heldu arte egoera jasan?

# 7. jarduera – Emozioa eta erantzukizuna ●●●●

## 2. Eranskina Dilema morala egiteko orientazioak

Lotura honen bidez dilema baten garapena ikus daiteke, dilemaren jarduera gauzatzeko orientabide metodologikoak azaltzen dira bertan. Dilema aplikatzen duzun lehen aldia bada gidatza hartu daiteke.

<https://www.youtube.com/watch?v=6DqUMFQuOO8>



# 8. jarduera – Konbentzitzea ●●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Hizkuntzak erabiltzen ikastea, komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzen ikastea.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Aurrez prestatu ondoren ahozko diskurtsoak sortzea, helburu eta konplexutasun desberdinekoak.
- Ongi egituraturako ahozko aurkezpenak egitea.
- Pertsuasiora bideraturako -eta batik bat gizarte-komunikabideetako- mezuen aurrean jarrera kritikoa.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

3. maila (Senezko autobabesetik babes planifikatura pasatzen da trafiko-egoera ohikoetan).

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honetan pertsona batek beste baten jarrera zalantzan jarri eta konbentzitu beharko du norberaren eta besteen segurtasunaren onerako jarrera hori aldatu beharraz.

## Helburuak:

- Jokaera batzuk bideko arriskuak eragiten dituztela hausnartzea.
- Trafiko arauak betetzeak gure segurtasunerako duen garrantzia balioestea.
- Kontzientzia hartzea: Bide-jokaera seguruak iraunkorrak izateko konbentzitura egotea eraginkorragoa da inposatuta jotatzea baino.

## Metodoak:

Lana bikoteka, eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Papelografo edo arbela.

Errotuladoreak.

Ordenagailua.

Proiektorea.



# 8. jarduera – Konbentzitzea ●●●●

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak, jarduerari hasiera emateko, galdera hau luzatuko die parte-hartzaileei:  
*Nola konbentzitu dezakegu pertsona bat zerbait egin dezan?*
- Parte-hartzaileei esango die beste pertsona batzuk konbentzitzeko zer egin ohi duten, eta hausnartutakoa beraien koadernoan idazteko.
- Bi edo hiru minutu utziko dira aurreko ariketa egiteko. Ondoren, hezitzaileak bi boluntario eskatuko ditu ariketa bat egiteko.
- Boluntarioetako batek bideko jokaera seguru bat aipatu behar du, egitea asko kostatzen zaion jokaera, edo zuzenean egiten ez duena. Jokaera batzuk izan daitezke: kaskoa jantzi edo lotzea, segurtasun uhala lotzea, gidatu beharra badago alkoholik ez edatea, gidatzean edo kalea gurutzatzean mugikorra ez begiratzea.
- Beste boluntarioa jokaera segurua jarraitzeko konbentzitzen saiatu beharko da.
- Taldeak besteak konbentzitzeko emaitza onenak ematen dituzten estrategia eta baliabide onenak zeintzuk diren eztabaidatuko du.
- Hezitzaileak arbelean idatziko ditu taldeak ateratako ondorio nagusiak. Adibidez:
  - *Hobe da galderak egitea baieztapenak egitea baino.*
  - *Hobe da bestea mindu edo izutu dezaketean esaldiak ekiditea.*
  - *Beharrezkoa da konbentzitu nahi duzun pertsonak bere ikuspuntua adierazteko aukera izatea eta entzuna dela sentitzea.*
- Hiru edo lau pertsonatako taldeak osotu eta talde bakoitzak hitzaldi bat prestatuko du (TED talk), 1 eranskinean azaltzen diren jokaera seguruetako bat aukeratu eta taldea jokaera seguru horretaz konbentzitzeko.
- Talde bakoitzak prestatutako hitzaldia emango duen bozeramailea aukeratu du, eta hitzaldi ezberdinak entzungo dira.
- Jarduera bukatzeko, trafikoari buruzko TED hitzaldi bat ikusiko du taldeak.

### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Jokaera batera ohituta gaudenean jokaera hori aldatzea ez da batere erraza.
- Arrazionalki konbentzitututa egon gaitzke jokaera bat aldatzeko beharraz, baina jokaera aldatzeko orduan, ohitura borondatea baino askoz indartsuagoa da.
- Ezinezkoa da pertsona bat agindu edo inposizio batengatik aldatzea, beharrezkoa da pertsona aldaketaren onurez konbentzitzea.
- Bideko-kultura asko aldatu da azken hogeitun urteetan. Lehenago ohikoak ziren jokaera batzuk gaur egun onartezinak dira, adibidez motorrean kasko gabe gidatzea.
- Istripu bat izateari edo min hartzeari beldurra izateak ez du beti funtzionatzen prebentziorako: izan ere, gure gomendioak mehatxu baten kutsua badu, gomendioa jasotzen duenak nahiago du entzundakoa ahaztea.
- Norberaren esperientziari edo bizipenari buruz xehetasun askorekin hitz egiteak ere ez du balio. Entzuten ari dena lasai dago, ez du berarekin zerikusirik duenik sentitzen, eta denborarekin ahaztu egingo du entzundakoa.
- Pertsona batek lotsarik gabe zer gertatzen zaion eta zergatik gertatzen zaion azaltzerik badu, ez bada mehatxatua edo presionatua sentitzen, pixkanaka jokaera aldaketa bat lortzeko pausuak emateko konpromisoa har dezake. Jokaera hauek finkatuz gero ohitura osasuntsuak bilakatuko dira.

# 8. jarduera – Konbentzitzea ●●●●

## 1. Eranskina Jokabide seguruak

Kalea oinezkoen pasabidetik zeharkatzea.

Segurtasun uhala lotzea.

Semaforoa oinezkoentzat berde dagoenean bakarrik kalea gurutzatzea.

Motorrean zirkulatzean kaskoa lotzea.

Bizikletaz zirkulatzean kaskoa lotzealr

Bizikleta-erreia baldin badago, bertatik zirkulatzea.

Zebra-bideetan pertsoneri igarotzen uztea.

Gidatu beharra badago ez edatea.

Kontraindikaziorik duen sendagairik hartu beharra badago, ez gidatu.

Gidatu beharra badago drogarik ez hartzea.

Gidatzerakoan mugikorra deskonektatu edo hegazkin moduan jartzea.

GPSa bidaia hasi aurretik programatzea.

Ibilbide bat egiten hasi aurretik beharrezkoak ditudan osagarriak soinean izatea, betaurrekoak adibidez.

Aurreikusita ez geneukan objekturen bat behar izanez gero, leku seguru bat bilatzea, gelditu eta objektu hori hartzeko.

Behin bidaia hasita dugunean, GPSa aldatu edo mapa begiratu beharra badugu, gelditzeko leku seguru bat bilatzea.

Atzerako ispiluak martxan hasi orduko prestatzea.

Bidaia hasi aurretik eserlekua doitzea.

Bi orduro gelditu eta atsedeen hartzea.


Nekea edo logura sentituz gero gelditzea.

Emozionalki aztoratuta baldin bagaude, norbaiti guri laguntzeko eta berak gidatzeko eskatzea.


# 8. jarduera – Konbentzitzea ●●●●

## 2. Eranskina TED loturak

[https://www.ted.com/talks/jennifer\\_healey\\_if\\_cars\\_could\\_talk\\_accidents\\_might\\_be\\_avoidable/transcript?language=es](https://www.ted.com/talks/jennifer_healey_if_cars_could_talk_accidents_might_be_avoidable/transcript?language=es)



[https://www.ted.com/talks/gary\\_lauder\\_s\\_new\\_traffic\\_sign\\_take\\_turns?language=es](https://www.ted.com/talks/gary_lauder_s_new_traffic_sign_take_turns?language=es)



# 9. jarduera – Nor zara zu? ●●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko, banakako edo taldeko jardueretan.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

- Igorlearen asmoaz ohartzea.
- Testuaren esanahi orokorrak eta ideia nagusiez jabetzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

4. maila (*Lehentasuna ematen dio sistematikoki bere segurtasunari, horrekin kontraesanean dauden taldeko presio-egoeren aurrean*).

## Jardueraren deskribapena:

Jorge Bucay-ren *Déjame que te cuente* liburuko “Nor zara zu?” ipuinean oinarrituko da jarduera. Istorio honen bidez pertsona orok egoera bakoitzean egin behar duena aukeratzeko duen erantzukizuna azalduko da. Besteen onspena bilatzea gaitutuko du istorioko protagonistak, eta bat-batean bere lagun eta ezagunen usteek suposatzen duten esklabutzatik libre aurkituko du bere burua.

Aldi berean, parte-hartzaileei mugikortasun segururako erabakiak hartzeko aukerak proposatuko dizkiegu, istorioan azaltzen den esklabutza horren menpe izan gabe.

## Helburuak:

- Parte-hartzaileak gatazka egoera aurreikustea eta taldearen iritzia edozein dela ere segurtasun jarrera bat izango duela adieraztea.

## Metodoak:

Talde-lana, banakako lana, eztabaida, collagea.

## Beharrezko baliabideak:

Jorge Bucay-ren “Nor zara zu?” ipuinaren kopia bat talde bakoitzerako. (1. Eranskina).  
Papelografo edo arbela.  
Kolorizko errotuladoreak.  
Enbalatze-papera.  
Aldizkariak.  
Kola.  
Guraizeak.



# 9. jarduera – Nor zara zu? ●●●●

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak Jorge Bucay-ren “Nor zara zu?” ipuina irakurriko du (1. Eranskina).
- Gero parte-hartzaileei lau pertsonatako taldeak osatzeko eskatuko die Sinclair jaunari gertatu zaiona komentatzeko. Horretarako jarraian luzatzen dugun bezalako taula bat bete beharko dute. Bertan istorioko lehen egunaren aurretik, istorioa garatzen den bitartean, eta bakardade osoa bizi ondoren, zein emozio eta ohitura zituen idatzi beharko dute.
- Ondoren, hezitzaileak talde bakoitzari eskatuko dio mugikortasunarekin lotura duen egoera bat pentsatzeko. Taldearen presioa egon behar da tartean: erabaki seguru batek eta taldearen onarpenak talka egingo dute egoera horretan.
- Talde bakoitzak egoera bat aukeratu, deskribatu, zein arrisku dagoen azaldu eta arriskua minimizatzeko nola jokatu beharko genukeen esan beharko du.
- Collage bat prestatuko dute aukeraturako mugikortasun egoera eta taldeko presioa irudikatzeko. Collagea egiteko aldizkariak, guraizeak, enbalatze-papera eta kola eta kolorezko errotuladoreak erabiliko dituzte.
- Lanak bukatutakoan hormetan edo arbelean esekiko dira, eta bozeramaile bakoitzak collage bakoitzarekin irudikatu nahi izan dutena azalduko du.

Ariketa egiteko hezitzaileak Sinclair jaunari buruzko galderak egin ditzake:

*Zer sentitzen du?*

*Zer egiten du?*

*Zerk beldurtzen du?*

*Zer ulertzen du?*


*Ipuinaren hiru momentuetan: hasieran, gertakizun arraroa gertatzen den bitartean eta bukaeran.*

|                            | Aurretik | Bitartean | Ondoren |
|----------------------------|----------|-----------|---------|
| <i>Zer sentitzen du?</i>   |          |           |         |
| <i>Zer egiten du?</i>      |          |           |         |
| <i>Zerk beldurtzen du?</i> |          |           |         |
| <i>Zer ulertzen du?</i>    |          |           |         |

### Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Pertsonak inguruneko presioa jasaten dute era esplizitu eta inplizituan.
- Kanpoko presioak balioetan, printzipioetan eta segurtasunean eragina du.
- Pertsona bakoitza bere erabakien erantzulea da eta arrisku egoeretan besteen presioak bere jokaera seguruak ez aldatzea ere bere esku dago.
- Talde baten pertsona guztien iritziak eta balioak errespetatzen ditugu, nahiz eta gure iritzi eta balioen desberdinak edo kontrakoak izan.





# 9. jarduera – Nor zara zu? ●●●●

## 1. Eranskina “Nor zara zu?” testua. Jorge Bucay.

Egun hartan Sinclair goizeko zazpian esnatu zen, beti bezala. Egunero ohi zuen bezala, etxeko zapatilak jantzi eta dutxatu ondoren bizarra moztu eta bere burua lurrindu zuen. Ohi bezala, modan dauden jantziak jarri zituen soinean eta etxeko sarrerara joan zen ea korrespondentziarik bazen ikustera. Eguneko lehen sorpresa jaso zuen orduan: Ez zegoen gutunik!

Azken urteetan geroago eta korrespondentzia gehiago jasotzen zuen etxean. Berarentzat munduarekin kontaktua izateko faktore garrantzitsua zen gutunen zera hori. Albisterik ez izate horrek umore txarrez jarri zuen hein baten. Esnea eta zerealak gosalduta zituen (medikuek aholkatzen zuten bezala) eta kalera irten zen.

Plaza gurutzatzean, Exer irakaslearekin ia estropezu egin zuen. Exer irakaslearekin ordu luzez aritzen zen alferrikako planteamendu metafisikoei buruz. Keinu batez agurtu zuen, baina irakasleak antza, ez zuen ezagutu. Bere izenez deitu zion, baina jada urrun zegoen eta Sinclairrek ez ziola entzun pentsatu zuen. Eguna gaizki hasi zen eta bazirudien txarrera zihoala, bere aldarrean asperdura mehatxuka ari zen. Etxera itzultzea erabaki zuen, irakurtzera eta ikertzera, lehenago heldu ez ziren gutunak helduko zirelako esperoan.

Gau hartan gizonak ez zuen ongi lo egin eta oso goiz esnatu zen. Beheko solairura jaitsi

zen eta gosaltzen zuen bitartean leihotik begira postaria etorriko ote zen espiatzen hasi zen. Azkenik, bazetorren postaria, eta bere bihotzak salto egin zuen. Baina, postaria bere etxe aurretik igaro zen, gelditu gabe. Sinclair kanpora irten zen ea berarentzat gutunik ote zuen galdetzeraz, baina postariak sakuan berarentzat gutunik ez zuela baieztatu zion, eta hirian ez zegoela berari gutunak heltzea eragozten zuen grebarik ezta banaketa arazorik.

Lasaitu orde, urduriago jarri zen Sinclair. Zerbait ari zen gertatzen eta zer ote zen asmatu beharra zuen. Txaketa jantzi zuen eta Mario bere lagunaren etxera abiatu zen.

Heldu zenean, maiordomoak bere laguna abisatzen zuen bitartean, egongelara joan zen itxaroteraz. Laster agertu zen Mario. Sinclair etxeko jabearengana hurbildu zen besoak zabalik, baina berak zera galdetu zion: Barkatu jauna, ezagutzen gara?

Gizonak laguna txantxetan ari zela pentsatu zuen eta barre bat behartu zuen, kopa bat eskatuz. Emaizta izugarria izan zen: etxeko jabeak maiordomoari deitu zion eta gizon arrotz hura kalera botatzeko eskatu zion. Sinclair-ek hori aditzean kontrola galdu zuen eta oihuka eta irainka hasi zen. Horrek langile indartsuak kalera biolentziaz bultzatzea eragin zuen...

Etxerako bidean beste auzokide batzuekin

gurutzatu zen, baina ezikusia egin zioten edo arrotza bailitzan jokatu zuten berarekin.

Ideia bat jabetu zen bere buruaz: bere kontrako konplot bat martxan zegoen eta berak akatsen bat egin zuen, zeren, ordu batzuk lehenago gizarteak baloratu egiten zuen eta orain, aldiz, baztertu egiten zuen gizarte horrek berak. Hala ere, pentsatu arren, ezin zuen gogoratu zer egin zuen gaizki, berak eginiko zer hartu zitekeen ofentsa bezala eta hiri guztia bere kontra jarri.

Bi egun etxean eman zituen, heldu ez zen korrespondentzia edo bere lagunaren baten bisita itxaroten, faltan botako zutela eta norbaitek bere atea joko zuen esperoan. Baina ez zen ezertxo ere gertatu: ez zen inor bere etxera hurbildu. Etxea garbitzen zion andrea ez zen azaldu ezta abisatu ere, eta telefonoak funtzionatzeari utzi zion.

Kopatxo bat gehiago edanda, bosgarren gauean Sinclair-ek eguneroko ergelkeriei buruz hitz egiteko lagunekin elkartzen zen tabernara joatea erabaki zuen. Bertan sartu bezain pronto, han ikusi zituen lagunak, aukeratu ohi zuten txokoko mahaian. Hans lodiak betiko txiste zahar bera kontatu zuen eta guztiak barrezka ari ziren ohi bezala. Sinclairrek aulki bat mahaira eramanean zuen eta bertan eseri zen. Berehala isiltasun osoa jabetu zen txokoaz eta argi geratu zen ez zela ongi etorria. Sinclair-ek ezin zuen gehiago jasan.

## 9. jarduera – Nor zara zu? ●●●●

“Zer duzue nire kontra? Zerbait oker egin badut eta mindu bazaitzuet esan, baina buka dezagun egoera honekin, ez nazazue horrela tratatu, zoratzen ari naiz eta”.

Besteak elkarri begiratu zioten, dibertituak batzuk, haserre besteak. Beraietako batek atzamar erakuslearekin zoroaren keinua egin zuen, etorri berria diagnostikatuz. Sinclair-ek berriz ere azalpen bat eskatu zuen, erregutu, eta azkenik lurrera erori zen eta arren eskatu zien berari egiten ari zirenen zergatia azaltzeko.

Gizon batek hitz egin zion bakarrik. “Jauna, gutariko inork ez zaitu ezagutzen, beraz, ez diguzu ezer egin. Izan ere, ez dakigu nor zaren”.

Begiak malkoz bete zitzaizkion eta tabernatik irten zen, bere humanitatea etxerarte arrastaka zeramala. Bazirudien bere hanka bakoitzak tona bat pisatzen zuela.

Bere logelan ohe gainera bota zen. Ez zekin zergatik, bat-batean ezezagun bat zen, galduta zegoen. Jadanik ez zegoen bere berriemaileen agendetan, bere ezagunen oroitzapenetan, ezta bere lagunuen bihotzetan. Bere buruan pentsamendu bat azaldu zen, mailuka bezala: besteak berari egiten zioten galdera hura. Berak bere buruari ere egiten zion galdera bera. “Nor zara zu?”.

Ba al zekien galdera horren erantzuna? Berak bazekizkien bere izena, alkandora neurria, bere nortasun agiriaren zenbakia eta besteakiko

definitzen zuten zenbait datu. Datu horietaz gain, nor zen bera egiazki, bere barnean eta sakonki? Berak atsegin zituen gauzak, jarrerak, zaletasunak, ideiak... benetan bereak ziren? Edo, aldiz, beste hainbat gauza bezala, bera horrelakoa izango zela espero zutenei kale ez egiteko saiakera bat? Zerbait argi egoten hasia zen: Ezezaguna izateak modu jakin bat bezalakoa izateak askatzen zuen. Modu batekoa izan ala ez izan, besteak berdin-berdin erantzuten zuten beraren aurrean. Egun luze haietan, lehen aldiz, zerbait lasaigarria aurkitu zuen: berak nahi bezala jokatu zezakeen, inoren onespina bilatu gabe.

Sakon arnastu zuen eta bere birikietan sartzen ari zen airea berria izango balitz bezalakoa sentitu zuen. Bere zainetan zehar odolaren jarioaz ohartu zen, bere bihotzaren taupadak nabaritu zituen eta sorpresaz konturatu zen; Lehenbiziko aldiz EZ ZEGOEN DARDARKA.

Azkenik, bazekien bakarrik zegoela, beti egon izan zela bakarrik, ez zuen inor bera izan ezik, ordudanik barre edo negar egin zezakeen... baina beragatik, ez beste inorengatik. Azkenik bazekin. BERE EXISTENTZIA EZ ZEGOEN BESTE INOREN MENPE.

Bere burua aurkitzeko bakarrik egotea beharrezkoa izan zela ohartu zen ...

Lasai eta sakonki lo hartu zuen eta amets ederrak izan zituen. Goizeko hamarretan esnatu zen eta bere leihotik

eguzki-izpi batek bere logela modu zoragarrian argitzen zuela ohartu zen.

Bainatu gabe, eskailerak jaitsi zituen inoiz entzun gabeko abesti bat ahopetik kantatzen. Zerbait aurkitu zuen bere ate azpian: berari zuzendutako gutun piloa.

Etxea garbitzen zion andrea sukaldean zegoen eta ezer gertatu ez bezala agurtu zuen.

Gauean, tabernan, bazirudien inork ez zuela gau zoro hura gogoratzen. Inork ez zuen gau hura aipatu behintzat.

Dena normaltasunera bueltatu zen... bera izan ezik. Zorionez, berak ez zuen sekula inori eskatu beharko berari begiratzeko bizirik zegoela jakiteko, ez zion kanpoko ezerri bera definitzeko eskatu beharko, berak ez zuen berriz ere arbuatua izateko beldurrik izango.

Dena berdina zen, baina gizon hark ez zuen sekula ahaztuko bera nor zen.

Jorge Bucay-ren *Déjame que te cuente* liburutik hartutako testua, RBA bolsillo, 2016ko edizioa.

# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea!

## Curriculumari dagokion helburua:

Ikasleen ezaugarri eta interesentzat egokiak diren eremu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta kritikoki interpretatzea, ulerpen hori komunikazio-egoera berriei aplikatzeko.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

Interes pertsonaleko eguneroko gaietarako buruzko elkarrizketetan parte hartzea, denetarikoa komunikazio-xedeekin: helburu bat lortzea, testu bat eztabaidatzea, jarduera bat antolatzea...

### 2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

Komunikabideetako testuak (zuzendariari gutunak, iritzi-artikuluak, albisteak...) eta eremu akademikoko testuak (laburpenak, ariketak, deskribapenak, esperientziaren kontaketa, txosten xumeak, iruzkinak...) paperean edo euskarri digitalean idaztea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Taldeko presioarekiko erresistentzia.

4. maila (*Lehentasuna ematen dio sistematikoki bere segurtasunari, horrekin kontraesanean dauden taldeko presio-egoeren aurrean.*)



## Jardueraren deskribapena:

Jarduera egiteko asertibitateari buruzko galde-tegi bat erabiliko dugu. Galdetegi honek pertsona bakoitzari bere jokaera-profila ezagutzeko aukera emango dio: asertiboa, pasiboa edo agresiboa.

Talde txikian asertiboki, pasiboki edo agresiboki tratatua izatearen bizipena izatea ere proposatzen dugu.

Jarduerak taldekideei lagunduko die beharrezkoa denean EZETZ esateko baliabideak ezagutu, esperimendu eta sortzen.

9. jardueran taldeko presioaren aurrean gure mugak ezartzea zergatik den zaila aztertuko da. Jarduera honetan muga horiek ezartzeko komunikazio-baliabideak landuko dira.

## Helburuak:

- Parte-hartzaileak gatazka egoera aurreikustea eta taldearen iritzia edozein dela ere segurtasun jarrera bat izango duela adieraztea.

## Metodoak:

Test indibiduala, simulazioa talde txikitan, kasuaren analisia, talde handian eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Komunikazio estiloetarako buruzko galde-tegia (1. Eranskina).

# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea!

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak parte-hartzaileei 1. eranskinean dagoen galdetegi ale bana banatuko die.
- Ondoren galdetegia betetzeko argibideak zeintzu diren azalduko die, hau da:

*Egoera bakoitzerako hiru erantzun posible izango dituzu. Erantzunak puntuatzeko 6 puntu dituzu: 6 puntuak erantzun bakarrari eman ahal dizkiozu edo bestela 6 puntu horiek 3 erantzun posibleen artean banatu, zure jokabidea hobekien islatzen duenaren arabera.*

- Parte-hartzaile bakoitzak bere profila identifikatzeko galdetegia beteko du.
- Hezitzaileak nahi duenak irten zaion profila komentatzeko eskatuko du, eta emaitzarekin bat datorren galdetuko dio. Pertsona batzuk beraien emaitzak partekatu ondoren, ikasleak hiruko taldeetan antolatzea eskatuko du hezitzaileak.
- Hirukote bakoitzari kasu bat banatuko zaio (2 eranskinean dago kasua). Kasuko protagonistak arrisku-egoera bati aurre egingo dio. Arrisku-egoera hau asertiboki EZETZ esaten konpondu daiteke.

- Taldekide bakoitzak kasua irakurriko du eta estilo bakoitzaren (asertiboa, pasiboa edo agresiboa) arabera erantzuna antzetzuko du bi minututako txandetan. Hiru estiloak simulatu egingo dira.
- Simulazioa amaitutakoan, hezitzaileak eztabaida irekiko du:
  - Nola sentitu zarete simulatutako estiloarekin?
  - Nola jaso dituzue taldekideek erabilitako komunikazio-estiloekin izan dituzten jokaerak?
  - Hiru estiloak kontuan izanda, zein izan da protagonista seguruen utzi duena?

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Komunikatzeko hiru estiloak: asertiboa, pasiboa eta agresiboa.
- Arrisku-egoera baten estilo zuzena aukeratzeko trebetasuna.
- Beldurra izan arren aukeratutakoa martxan jarri eta kontrolatzeko gaitasuna.
- Beste estilo bat duten pertsonekin harremanak kudeatzeko baliabideak.



# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea! ●●●●●●●

## 1. Eranskina Komunikazio estiloei buruzko galdetegia

Egoera bakoitzerako hiru erantzun posible izango dituzu. Erantzunak puntuatzeko 6 puntu dituzu: 6 puntuak erantzun bakarrari eman ahal dizkiozu edo bestela 6 puntu horiek 3 erantzun posibleen artean banatu, zure jokabidea hobekien islatzen duenaren arabera.

1– Zure laguna etxera zure etxera heldu da afaltzera, ordubeteko atzerapenarekin. Ez dizu deitu berandutuko zela abisatzeko. Zu haserre sentitzen zara bere puntualtasun-ezagatik. Hau esaten diozu:

|  |
|--|
| Sartu, afaria mahaian dago.  |
| Berandu etorri zara eta oso urduri jarri nauzu. Hau da gonbidatzen zaitudan azken aldia. |
| Ordubete izan naiz itxaroten. Berandutu behar zinela abisatzea gustatuko litzaidake.     |



2– Zure lankide batek berari dagozkion lanak zuri ematen dizkizu etengabe. Egoera honekin bukatu nahi duzu. Zure lankideak zerbait konkretua egiteko eskatu dizu oraintxe bertan, berak egin beharko lukeen zerbait. Hau erantzuten diozu:

|   |
|---|
| Inondik inora. Ez dago apenas denborarik lan hori bukatzeko. Esklabu bat bezala tratatzen nauzu. Ez didazu begirunerik. |
| Ez, Pepe. Ez dut nire erantzukizunpean dagoenaz gain ezer egingo. Nire lanaz gain zurea egiteaz nekatuta nago.          |
| Nahiko lanpetuta nago, baina ez baduzu bukatzen lagundu ahal dizut.   |

3– Ezezagun batzuk zure etxe ondoko pisura etorri dira bizitzera oraintsu. Auzokide berriak ezagutu nahi dituzu, beraz:

|  |
|--|
| Beraien etxera hurbildu, atea jo, eta zabaltzen dutenean zera diozu: Egun on! Luisa/ Angel naiz, hemen alboan bizi naiz. Ongi etorriak. Zuek ezagutzeaz pozten naiz. |
| Zure auzokideekin elkartean irribarre egiten duzu, baina ez duzu ezer esaten.  |
| Auzokideak leihotik begiratzen dituzu.   |

4– Senide batek (ama, anaia, ahizpa...) bere urtebetetzea dela eta, igandean bazkaltzera gonbidatu zaitu. Familia osoa izango da ospakizunean. Justu asteburu honetarako asteburu-pasa joateko plana eginda zeneukan. Oso nekatuta zaude eta deskantsua behar duzu. Hau erantzuten diozu:

|  |
|--|
| Justu asteburu honetan... kongresu bat dago eta derrigorrez joan beharra daukat bertara.   |
| Asteburu honetan kanpotik izango naiz eta ezingo naiz bazkarira joan. Oso nekatuta nago eta apur bat deskantsatzeko beharra dut.       |
| Asteburu honetan irteera bat egitekoa nintzen, baina data ezin baduzu aldatu, bazkarira joango naiz eta nire asteburua atzeratuko dut. |

5– Jatetxean zerbitzua oso geldoa da eta zuk presa daukazu.

|  |
|--|
| Zerbitzariari prestatuta dagoen edozer ekartzeko eskatzen diozu.                       |
| Zure eskaria sekula ez dela helduko konturatzen zarenean, altxa eta bazoaz jatetxetik. |
| Eskatutakoa ekarri arte isilean itxaroten duzu eta oso bizkor jaten duzu.              |

# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea!



6– Hornitzaile batek ekarri behar zizuen materiala berandu dabil. Zure erakundeari oso ondo egokitzen zaio material hori, baina orain behar du.

|  |
|--|
| Ez zara berriro deitzen ausartzen. Aste hasieran deitu zenuen eta egun batzuk barru helduko zela esan zizuten. |
| Ez zara haserretzen, baina egunero deitzen diozu.  |
| Telefonoz deitu eta errieta egiten diezu, zure erakundeak beraiei eskari gehiago ez diela egingo esanaz.       |

7– Zure nagusiak egun txarra du eta etengabe ari da zuri deitzen tontakeriak galdetzeko, zure lana eteten:

|  |
|--|
| Lan asko duzula esaten diozu eta goiza amaitu orduko ordubeteko bilera egitea proposatzen diozu. |
| Mesedez, lan egiten uzteko esaten diozu.   |
| Pasatuko zaiola pentsatzen duzu eta beragana zoaz pazientziarekin.                               |

## GALDETEGIAREN EMAITZA-TAULA

Testaren puntuazioak hurrengo taulara eraman itzazu, idatzi dituzun ordena berean. Zutabe bakoitzean idatzi itzazu berriro egoera bakoitzean jarri dituzun zenbakiak, aukeratutako ordena berean.

Zenbaki guztiak idatzi ondoren, gehitu itzazu sigla bakoitzeko puntuazioak .

| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | GUZTIRA                        |
|----|----|----|----|----|----|----|--------------------------------|
| PA | AG | AS | AG | AS | PA | AS | PA=                            |
| AG | AS | PA | AS | AG | AS | AG | AS=                            |
| AS | PA | AG | PA | PA | AG | PA | AG=                            |
|    |    |    |    |    |    |    | HIRUREN<br>GEHIKETA: <b>42</b> |

Zure emaitza ezagutzeko, ondorengo taula eta komunikazio-estilo bakoitzean jaso duzun puntuazioa alderatu itzazu:

PA = PASIBOA. Sigla honetako puntuazio guztiak gehitu eta jar ezazu emaitza "guztira" zutabearen.

AS = ASERTIBOA. Sigla honetako puntuazio guztiak gehitu eta jar ezazu emaitza "guztira" zutabearen.

AG = AGRESIBOA. Sigla honetako puntuazio guztiak gehitu eta jar ezazu emaitza "guztira" zutabearen.

| Estilo bakoitzean eskuratutako puntuak | Zure egunerokotasunean erabiltzen duzun maiztasuna |
|--|--|
| < 17                                   | la inoiz ere ez                                    |
| 17-24                                  | Batzuetan  |
| 24-36                                  | Askotan  |
| 36-42                                  | la beti  |

# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea!

## 1. Eranskina: Komunikazio estiloei buruzko galdetegia

### JOKAEREN DEFINIZIOA

#### Jokaera asertiboa

Norberak dituen sentimenduak, gurariak, bidezko eskubideak eta iritziak adieraztea inor mehatxatu edo zigortu gabe, eta inoren eskubideak urratu gabe.

Asertibitateak norberarekiko errespetua dakar, norberaren nahiak adierazi eta norberaren eskubideak defendatzen dira, besteen eskubide eta nahiak errespetatuz batera. Pertsonak egoera baten aurrean dituzten erantzukizunak ezagutu behar dituzte eta baita beraien sentimenduak adierazten badituzte ondorioak zeintzuk diren.

Jokaera asertiboa izateak ez du esan nahi bi aldeen artean ez denik gatazkarik izango. Jokaera honen helburua ondorio onuragarriak bultzatu eta kaltegarriak minimizatzea da.




#### Jokaera pasiboa

Norberaren eskubideen urraketa ematen da, sentimenduak, pentsamenduak eta iritziak argi eta garbi adierazteko gabeziagatik, edo modu autodestruktibo batez adierazteagatik -barkamena eskatuz, konfiantza-ezarekin-besteek kasurik ez egitea ekar dezakeelarik.

Asertiboa ez izateak norberaren beharrezanekiko errespeturik ez izatea adieraz dezake. Jokaera honen helburua besteak baretzea da, eta gatazka ahala ahala saihestea. Jokaera honek asertiboki portatzen ari ez den pertsonarentzat eta berarekin interaktuatzen ari denarentzat ondorio kaltegarriak ekar ditzake.

Komunikazio-eza, zuzena ez dena edo osoa ez den komunikazioa ematen da jokaera honekin. Horren ondorioz, pertsona ez-asertiboak bere nahiak betetzeko aukerak izugarri murrizten ditu. Horrela jokatzen duen pertsona askotan inork ulertzen ez diolakoan dago, ez dutela kontuan hartzen edo manipulatu sentitzen da. Gainera, ondorioekin haserretu daiteke eta beste pertsona batzuekiko kontrako jarrera edo suminkorra izan dezake.

Baliteke pertsona batek hainbatetan ez-asertiboki jokatu ostean eztanda egitea. Norbanako bakoitzak frustrazio maila bat jasan dezake. Asertiboa ez den jokaera jasotzen duenak baita okerreko ondorio batzuk sufri ditzake. Etengabe besteak benetan zer esan nahi duen aztertzea edo bere pentsamenduak irakurtzea oso lan nekagarria eta zaila da eta frustrazio-sentimenduak, ondoeza eta amorrua ere agertu ahal dira asertiboki ari ez den pertsonaren kontra.



# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea!

## 1. Eranskina: Komunikazio estiloei buruzko galdetegia

### Jokaera agresiboa

Bere eskubide pertsonalak defendatzen ditu, eta bere pentsamendu, sentimendu eta iritzia modu desegoki eta inposatzaile baten adierazten ditu, beste pertsona batzuen eskubideak urratuz.

Egoera baten aurrean jokaera agresiboa zuzenki edo zeharka adieraz daiteke.

Zuzeneko hitzeko erasoak irain, mehatxu eta komentario latz edo umiliagarriak izan daitezke. Hitzekoak ez diren erasoak, aldiz, keinu erasokor edo mehatxagarriak izan daitezke -ukabila erakutsi edo begirada sakonak adibidez- edo eraso fisikoak baita. Zeharkako hitzeko erasoak komentario sarkastikoak, gorrotozkoak edo intentzio okerra duten zurrumurruak izan daitezke. Hitzekoak ez diren eraso agresiboak beste pertsona norabaitera doanean keinu fisikoak egitea, edo beste pertsona edo objekturen bati eginiko akto fisikoak izan daitezke.

Pertsona agresiboen biktimak lehenago edo beranduago erresumina sentitzen dute eta berarekin egotea ekidin nahi izaten dute. Agresioaren ohiko helburua beste pertsonak dominatzea da. Garaipena besteak umiliatuz eta degradatuz lortzen da. Besteak ahulagoak bilakatu nahi ditu horrela jokatzeko duenak, besteak beraien eskubide eta beharrianak adierazteko gaitasun gutxiago izan dezatela.

Jokaera agresiboa askotan handinahikeriaren adierazlea da, kosta ahala kosta helburuak lortu nahi izatearena, arau etikoak edo besteen eskubideak urratu behar badira ere.

Jokaera honek epe motzean emaitza onak ekar ditzake, botere sententzia eta norberaren helburuak lortzea adibidez. Baina nahi ez diren ondorioak ere ekar ditzake jokaera honek; kulpasentimendua, besteak kontrari erasokor agertzea -zuzenki edo zeharka, erantzun sarkastiko edo desafiozko begirada bat jasota, adibidez-.

Epe luzera jarrera mota honen ondorioak beti dira negatiboak.

**Letizia Di Bartolomeok sortutako galdetegia**  
([letizia@formaccio.net](mailto:letizia@formaccio.net))

**Egokitutako testua**  
<http://www.ciudadfutura.com>





# 10. jarduera – Zaila da ezetz esatea! ●●●●●●●●

## 2. Eranskina Amaiaren kasua

Amaia irakasle gazte bat da.

Bere lehen eskolara heldu berria da. Zein zaila den umeekin tratatzea!

Esperientzia gehiago duten kideei laguntza eskatzen die etengabe.

Lankide batzuk oso adeitsuak dira berarekin, amatiarrak ere bai.

Beste lankide batzuk ordea, kokoteraino daude berari aholku pedagogikoak emateaz eta saihestu egiten dute Amaia.

Neguko goiz baten 4 talde irteten dira antzokira, bere taldea barne.

Umeen ilara luzea eta zaratatsua da.

Oinez doaz antzokira.

Antzokia eskolatik bost kaletara dago soilik.

La bertan daude. Azken kale bat gurutzatzea falta zaie. Hiru erreitako kale zabal bat da.

Bidegurutzean semaforo bat dago.

Ilara semaforoa oinezkoentzat berde jarri arte itxaroten ari da.

Itxaroten.

Eta itxaroten.

Eta ez da berde jartzen.

Semaforoak ez duela funtzionatzen konturatu dira.

Zer egingo dugu, nola gurutzatuko gara... lankideak urduri daude eta Amaiari trafikoa geratzeko eskatu diote, ilara luzeak errepidea gurutzatu arte.


Amaiak beldurra du.

Antzokia hor bertan dago eta funtzioa hasteko zorian dago.

Orain zu zara Amaia.

Lankideei erantzuna eman.

# Zientzia eta teknologia-eremua



# 11. jarduera – Motxila ●●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Arazo zientifiko-teknologikoen aurrean irizpide pertsonalak eta arrazoituak lantzea, era horretan ikertzeko gogoia eta jakin-mina edukitzeko.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### Sarrera

Malgutasuna, zehaztasuna eta koherentzia sustatuko duten jarrerak garatzea, oreka pertsonala, norberaren gorputzaren ezaugarriak, mugak eta aukerak ezagutzeko. Izan ere, izaki bizidun garen neurrian, zaindu eta hobetu egin behar den ingurunearekin ezartzen ditugun harremanen mende egongo da gure osasuna eta ongizatea.


### 3. multzoa. Gizakiak eta osasuna

- Osasuna zaintzeko ohitura prebentiboak hartu eta garatzea, pertsona bakoitzak bakarka nahiz gizartean gaur egun dituen ohituren azterketa abiapuntutzat harturik.
- Erlazio-funtzioak.
- Nerbio-sistemak osasuna mantentzeko duen egitekoa (loa, atsedena, estresa...).

### Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

#### Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

3. maila (*Bere egoera emozionalak erregulatzen ditu, eragin negatiboak minimizatuz eta eragin positiboak trafiko-egoerentarako aprobetxatuz.*)



## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honen bidez parte-hartzaileek kalteak eragin ditzaketen arrisku-egoera eta bideko-jokaera batzuen gainean kontzientzia hartzea nahi da.

Horretarako parte-hartzaileek arrisku-egoerak partekatuko dituzte eta identifikatutako arriskuak gutxitzeko edo desagerrarazteko estrategiak eratuko dituzte.

Prebentzio-estrategia eta bideko ohitura onen motxila bat irudikatu beharko dute parte-hartzaileek jarduera honetan. Horretarako segurtasun indibiduala eta espazio publikoa gurekin partekatzen dutenen segurtasuna hartu beharko ditugu kontuan.

## Helburuak:

- Bideko-ohitura seguruak ez izateagatik osasuna eta segurtasuna jokoan jar ditzaketen arriskuak aztertzea.
- Mugikortasun-arriskuen aurrean jokaera seguruak identifikatzea.
- Jokaera osasuntsu eta seguruak partekatzea, hobetzea, asimilatzea eta erabiltzea.

## Metodoak:

Banakako lana, talde lana, jendaurreko aurkezpenak sortzea.

## Beharrezko baliabideak:

Arrisku-egoerak (1. Eranskina)  
Jokaera seguru eta osasuntsuak (2. Eranskina)  
Horma-irudiak egiteko papera.  
Ordenagailua. Proiektorea.

# 11. jarduera – Motxila ●●●●

## Jardueraren garapena:


- Jarduera hasteko, hezitzaileak gure segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak daudela esango du. Egoera horiei aurre egiteko ekintza prebentiboak ezagutzea oso baliagarria izan daiteke.
- Ondoren parte-hartzaile bakoitzari 1 eranskinean dauden arrisku egoeretako bat banatuko dio. Egoera bera hainbat pertsonari banatuko dio.
- Parte-hartzaile bakoitzak aurkeztutako arrisku-egoerari aurre egiteko jokaerak identifikatu eta idatzi beharko ditu.
- Minutu batzuk utzi ondoren, arrisku-egoera berdina azertu duten parte-hartzaileak elkartuko dira taldeetan.
- Talde bakoitzak bakarka identifikatu dituzten prebentzio-jokaerak partekatu eta dagozkien arrisku-egoerari aurre egiteko eman daitezkeen jokaerak zerrendatuko dituzte. Prebentzio-jokaerak horma-irudi baten idatziko dituzte.
- Talde bakoitzak bozeramailea aukeratuko du. Bozeramaile honek taldearen horma-irudia aurkeztuko du bost minututan.

- Talde handian talde txikietako proposamenei buruz eztabaidatuko da:
  - *Egokiak dira prebentzio-jokaera hauek?*
  - *Bideragarriak?*
  - *Elementuren bat gehituz edo kenduz hobetu daitezke?*
- Talde txiki bakoitza berriz ere elkartuko da, eta beraien lanari buruzko ekarpenak kontuan izanda lema bat sortuko dute eta ideia garrantzitsuenak bilduko dituzte.
- Talde bakoitzak PowerPoint bat sortuko du diapositiba bat edo birekin. Diapositibetan gehienez 12 hitz jarriko dituzte irudi, marrazki edo argazki lagunduta.
- Talde handiarekin partekatuko dira diapositibak. Material hau bide-segurtasun motxilakoa da.

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Sarritan ekidin ezin daitezkeen egoera arriskutsuak izango dira mugikortasunari lotuta, espazioaren antolaketa eta erlazioen konplexutasunak sortutako egoerak.
- Pertsona orok, espazio publikoan mugitzen denean, norbera eta gizartea babesteko ekintza prebentiboak garatu ditzake.



# 11. jarduera – Motxila ●●●●

## 1. Eranskina

### Arrisku-egoerak

1. Gaur jaieguna izan da eta lagun eta senideekin ospatu dugu: **asko jan dugu eta alkohola ere edan dugu.** Festa bukatu da eta bidaiari luze bat egin beharra du. Ahalik eta arinen hasi behar du bidaiari beste konpromiso bat daukat eta. **Zuk zer egingo zenuke?**
2. Badira ia 20 ordu **ez dudala lorik egin.** Logura datorkit eta badoa. Momentu batzuetan ongi sentitzen naiz eta normal erantzun dezakedala uste dut. Besteren baten ere gertatu izan zait horrelakoren bat. Nagoen lekutik 100 km-tara joan beharra du. **Zuk zer egingo zenuke?**
3. **Eztabaida gogor bat izan du** eta haserrea sentitzen du, amorruekin kontrolatzea kostatzen zait. Ez dudala lasaitasunez erreazionatzen konturatu naiz. Minutu gutxi barru motorra hartu eta lagun baten bila joan beharra du aireportura, hirira dator egun batzuk pasatzera. **Zuk zer egingo zenuke?**
4. Nire erreflexuak gutxitzen dituen **botika bat hartzen ari naiz.** Senide batek deitu berri dit, gaizki sentitzen dela eta medikuarengana laguntzeko eskatu dit, ez duela bakarrik joan nahi eta ea nire autoan joan gaitezkeen. Juxtu botika hartu dut oraintxe eta kontziente naiz gidatzeko moduan ez nagoela. **Zuk zer egingo zenuke?**
5. **Itzeleko zaparrada ari du.** Laneko elkarrizketa bat daukat, oso garrantzitsua da niretzat. Pixka bat itxaron du, ekaitza baretuko ote den eta ez, berdin darrai. Hitzordura heldu behar naiz eta larri nabil denboraz. Garaiz heldu nahi badut autoa hartu eta azeleratu beharko dut. **Zuk zer egingo zenuke?**
6. **Gidatzen ari naizela mugikorretik deitu didate.** Dei garrantzitsu bat itxaroten ari naiz eta nor ari zaidan deika jakin nahi dut. Ez bada espero dudana deia ez dut hartuko. **Zuk zer egingo zenuke?**
7. Geralekura gerturatzean, autobusa heldu dela ikusten dut. Geralekua kalearen beste aldean dago. **Kalea zabala da** eta oinezkoen semaforoa gorrian dago. Egun gogorra izan da eta etxera heldu nahi dut, baina kotxeak ari dira pasatzen. **Zuk zer egingo zenuke?**
8. Nire bikotea eta ni kilometro askotako bidaiari egiten ari gara. Nire bikoteak **gidatzen du.** Aspalditik lanean ditudan arazoak kontatu nahi dizkiot eta une hau aproposa dela uste dut. Nik hartu behar ditudan erabakiek bere bizitzan ere eragin handia izango dute. Momentu honetan trafiko asko dago, eurria ari du eta bera isilik dago, gidatzean duelako arreta. **Zuk zer egingo zenuke?**




# 11. jarduera – Motxila ●●●●

## 2. Eranskina Jokaera seguru eta osasuntsuak

Ondorengo puntuak ideiak eta proposamenak lantzeko baliagarriak dira. Analisia egin eta ondorioak ateratzeko gida bat dira. Taldea libre da gidan proposatzen diren pauso guztiak edo batzuk bakarrik aukeratzeko.


1. Bideko arrisku-egoera bat deskribatzea.



2. Egoera horri aurre egiteko jokaera posibleak pentsatzea.



3. Jokaera horien ondorioak irudikatzea.



4. Jokaera seguruena eta osasuntsuena idaztea.



5. Aukeratutako jokaera aurrera eramateko pausuak deskribatzea.



6. Jokaera hori gure egunerokotasunean txertatzeko, gogoratzeko erraza den eslogan bat pentsatzea.



# 12. jarduera – Ustekabez beteriko ibilbidea ●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Norberaren jakintzak, trebetasunak eta estrategiak ezagutzea eta balioestea, era horretan konfiantzaz eta autonomiaz ekiteko eguneroko problema zientifiko-teknologikoei, eta haien alderdi sortzaile, manipulatio, estetiko edo utilitarioekin gozatzeko.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 1. multzoa. Problema ebaztea eta erabakiak hartzea.

- Problema antzeman eta formulatzea, egoera errealak abiapuntutzat harturik.
- Problema ebazteko protokoloak osatu eta aztertzea talde-lanetarako (taldea osatzea, lanaren banaketa, denbora-banaketa orekatua, prozesuaren azterketa...).
- Informazio-iturri desberdinak erabiltzea arazoak ebazteko.
- Problemei ikuspuntu desberdinetatik aurre egiteko malgutasuna.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Egokitzapena eta malgutasuna.

4. maila (Sistematikoki eta automatikoki baloratzen ditu bere egoera, ingurune dinamikoa eta araua, bere buruaren nahiz besteen segurtasuna gehien babesten duen erabakia hartu ahal izateko).



## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honetan parte-hartzaileek bidai bat edo ibilbide bat planifikatu beharko dute, ustekabean gertatzen diren egoerei aurre eginez. Banaka, ohikoa den joan-etorri bat edo bidaia puntual bat planifikatu beharko dute lehenik. Beste parte-hartzaile batek joan-etorri horretan gertatu daitezkeen ustekabeak planteatuko dizkio, eta parte-hartzaileak ustekabe horiei aurre egiteko erantzun eta baliabideak bilatu beharko ditu.

## Helburuak:

- Mugikortasun egoera baten ustekabean gerta daitezkeen arazoei aurre egitea.
- Mugikortasun arazoak konpontzeko informazio egokia eta baliagarria bilatzea.
- Bideko egoera konkretu batzuetan ematen diren arazoak testuinguruan jartzea.
- Arazoak konpontzeko erantzun lasaiak ematea.

## Metodoak:

Banakako lana, binakako eztabaida.

## Beharrezko baliabideak:

Ustekabeko egoerak (1. Eranskina).  
Papelografo edo arbela.  
Errotuladoreak.

# 12. jarduera – Ustekabez beteriko ibilbidea ●●●

## Jardueraren garapena:

- Banaka ibilbide bat planifikatu beharko dute. Irteera eta helmuga bat izan behar du ibilbideak. Erabiliko duen ibilgailua, irteera eta helduera ordutegiak eta geldialdiak zehaztu beharko ditu parte-hartzaile bakoitzak. Informazio guztia lortzeko Internet erabil daiteke. Planifikaziorako beharrezkoa den informazio guztiarekin txosten bat osatuko dute.
- Binaka jarrita, txostenak trukatu dituzte.
- Bikotekide bakoitzak bestearen ibilbidea gainbegiratu du. Beharrezkoa ikusten badu arrisku-ekintza batzuk jarriko ditu agerian. Adibidez: ibilbide luze bat egiteko atsedenaldirik planifikatu ez bada edo atsedenaldirik laburregiak planifikatu badira, etab.
- Ondoren, pertsona bakoitzak bere bikotekideari ustekabeen gerta daitezkeen hiru egoera planteatu dizkio. 1 eranskinean adibide batzuk luzatzen ditugu.
- Parte-hartzaile bakoitzak bere ibilbidean agertu daitezkeen ustekabeen egoera horiei aurre egiteko konponbideak bilatu beharko ditu. Bikoteak lagun diezaiokete lan horretan.
- Bikoteka egindako lana bukatutakoan talde handian elkarbanatu da lan hori egiterakoan izandako esperientzia: zeintzuk izan diren gai garrantzitsuenak, eztabaida gehien sortu dituztenak eta zein egoerari ezin izan dioten konponbiderik eman.

- Hezitzaileak eztabaida pizteko galderak egingo ditu:
  - Zeren arabera esaten dugu egoera bat problematiko dela?
  - Zer nolako arazoak sortu daitezke bidaia bat egiten dugunean?
  - Zein arazok izan behar dute lehentasuna? Zergatik?
- Ondorioak jasotzeko, ondoko laburpen taula proposatzen dugu:

| Ustekabeko egoerak | Arriskuak | Ezarri beharreko babes ekintzak |
|--------------------|-----------|---------------------------------|
|                    |           |                                 |
|                    |           |                                 |
|                    |           |                                 |

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Istripuak ekiditeko aurreneko modua bidai edo ibilbide baten planifikazioa da.
- Beharrezkoa da ustekabe baten aurrean lasai eta soseguz jokatzea, autobabesari lehentasun osoa emanez.






# 12. jarduera – Ustekabez beteriko ibilbidea ●●●

## 1. Eranskina Ustekabean gertatu daitezkeen egoerak

Bidaia edo joan-etorri baten gerta daitezkeen arrisku-egoerak edo ustekabeak luzatzen ditugu eranskin honetan, orientatiboki.

1. Gidaria auto-ilara handi baten erdian dago. Jadanik ia ordu bete darama geldirik. Planifikatuta zuen dena pikutara doa. Auto batzuk emergentziako erreia erabiltzen hasiak dira ikusten ez den errepide baterako irteera bilatzeko.
2. Gidaria konturatzen da sarritan lozorroa sentitzen duela eta begiak ixten zaizkiola.
3. Bat-batean txingor-ekaitza hasi da eta zaila egiten zaio metro gutxi batzuetan ere ikustea.
4. Egun guztian zehar euria egin du eta irratitik esan berri dute kaleak ibilgaitzak bihurtzen ari direla. Ez zirkulatzea gomendatu dute.
5. Arratsaldeko bilera izugarri luzatu da, gidaria denboraz larri dabil eta presaka irten da lanetik. Nahiago luke korrika ez ibiltzea, baina bere 4 urtetako alaba momentu horretan gelatik irteten ari dela pentsatzen du.
6. Gidariak ospitalean senide bat du ingresatua. Bidean doala mugikorretik deitu diote. Ez du esku libreko telefonorik.
7. Gidariak bat-batean autoko kontrola galtzen ari dela sentitzen du. Errepidean koipea dagoela konturatu da.
8. Gidaria autobidetik 100 km/h-ra doa, eta bat-batean autoko motorra huts egiten hasi da.
9. Gidaria konturatzen da aurretik doan ibilgailuaren gurpil bat zulatu dela, eta beste gidariak kontrola ezin ditzakeen mugimenduak egiten hasi dela.
10. Gidariak atzeko eserleketan bi ume daramatza. Bat-batean eusteko aulki bat ez duela ongi lotu konturatzen da, ume bat solte doa.
11. Gidaria autobidetik doa zirkulatzen. Bero asko egiten du eta egarriak ez dio uzten kontzentratzen. Atezko eserlekuan ur botila bat du.



# 13. jarduera – Benetako neurria ●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Arazo zientifiko-teknologikoen aurrean irizpide pertsonalak eta arrazoituak lantzea, era horretan ikertzeko gogoia eta jakin-mina edukitzeko.

## Curriculumari dagokion edukiak:

### 2. multzoa. Errealitatea irudikatzea.

- Neurtzeko ohiko tresnak abileziaz erabiltzea, perdoiak kotatuz magnitude bat estimatu, neurtu edo hurbiltzean.
- Sistema metriko hamartarra eta magnitude bereko unitate batzuetatik besteetara pasatzeko algoritmoak erabiltzea, objektuen tamainari buruzko informazioa interpretatu eta azaltzeko.
- Norberaren gaitasunetan konfiantza izatea problemak ebazteko eta zenbakizko kalkulu eta estimazioak egiteko.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Ingurunearen azterketa.

2. maila (*Bide-ingurunea aztertzen du, elementu ezberdinak aintzat hartuz, eta aukera ezberdinen artean erabakitzeke gaitza, bere buruaren segurtasuna baloratuz.*)

## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honetan parte-hartzaileek maketak eraiki beharko dituzte. Hiriko edo hiriarteko espazioak irudikatu beharko dituzte; zirkulazio erreikiak, eraikuntzak, espazio publikoak, landa-guneak, seinaleztapenak, oinezkoak, ibilgailuak... lantaldeak aukeratutako eskalan irudikatuko da espazioa.


Talde bakoitzak aukeratutako espazio horretan egin daitezkeen hobekuntzak zehaztuko ditu. Mugikortasun arloan ezarri daitezkeen hobekuntzak, seinaleztapena, espazio publikoak, hiri-altzariak etab. Esku-hartze posibleak zehaztuko dituzte denen artean.

## Helburuak:

- Ingurunean hobekuntzak bilatu eta proposatzea, pertsonen ongizatea eta segurtasunaren onurarako.
- Ohikoak diren neurri-tresnak erabiltzea.


## Metodoak:

Talde-lana, benetako ingurunean praktika eta informazioaren bilketa.



## Beharrezko baliabideak:

Maketaren oinarrirako kartoi gogorra.  
Kolorezko kartulinak.  
Kolorezko errotuladoreak.  
Kola.  
Neurri-tresnak.  
Ordenagailua interneterako sarbidearekin.



# 13. jarduera – Benetako neurria ●●


## Jardueraren garapena:

- Parte-hartzaileak hiru edo lau pertsonako taldeetan jarriko dira eta maketa bat egiteko beharko dituzten materialak bilatuko dituzte.
- Talde bakoitzak erreproduzitu nahi duen gune geografikoa aukeratu du. Google Earth bidez <https://earth.google.es/> baliatu daitezke aukeraketa hau egiteko eta xehetasunak zehazteko. Aukeratutako azalera gehienez 500mtako aldea duen karratu bat izan beharko da.
- Taldeak ahalik eta datu gehien batuko ditu maketa ahalik eta xehetasun handienarekin egiteko: azalera aztertuko du, neurketak egin, argazkiak lortu, mapak kontsultatu etab.
- Jasotako datu guztiekin taldeak maketa egiteko kalkuluak egingo ditu eta materialak prestatuko ditu. Hasi aurretik eskema bat marraztu beharko dute (kaleak, bideak, eraikinak, parkeak, enparantzak, semaforoak, oinezko pasaguneak, monumentuak, kale-argiak, paperontziak, esertzeko bankuak, etab. irudikatuz).
- Talde bakoitzak aukeratutako azaleraren maketa eraikiko du, ahalik eta errealitatearekin fidelena izan behar da. Azkenik espazioa nola hobetu daitekeen hausnartu beharko dute eta proposamen zehatzak definitu. Proposamenen helburua zera izango da: **ESPAZIO HORRETAN MUGITZEN DIREN PERTSONEN BIDE-SEGURTASUNA ETA ONGIZATEA HOBETZEA.**
- Talde bakoitzak dokumentu baten jasoko ditu egindako proposamenak. Hezitzaileak dagokion erakunde publikoaren aurrean aurkezteko formatua proposatu dezake, mota honetako eskariak nola egiten diren praktikatzeko.
- Jarduerari amaiera emateko, talde bakoitzak bere maketa aurkeztuko du eta irudikatutako azalera proposatzen dituzten hobekuntzak azalduko ditu.

## Onorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Gune bat tridimentsionalki eskalara irudikatze beharrezkoak diren neurri-sistemak erabiltzea.
- Testuinguru kontuan izanda errealitatean pertsonen mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko aukerak.
- Proposamenak egiteko modu egokia; ongi oinarritutako irizpideekin eta argi eta garbi azalduta.



# 14. jarduera – Bizitza kalean ●●●

## Curriculumari dagokion helburua:

Talde-jarduera zientifiko eta teknikoak prestatzen eta egiten parte hartzea; helburuen arabera norberak eta besteek egindako ekarpenak balioestea; jarrera malgua eta lankidetzazkoa edukitzea; ardurak hartzea eta edozein diskriminazio-mota baztertzea; era horretan, denen artean eta elkarrizketa erabiliz, aurre egitea eguneroko bizitzako oinarrizko problema zientifiko eta teknikoei.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 4. multzoa. Sistema materialen oreka.

- Ekosistemen aldaketa eragiten duen faktore nagusia gizakia dela konturatzea.
- Ingurumena zaintzeko beharraz jabetzea, maila indibidual nahiz kolektiboan.
- Gizakien arteko eta gizakien eta ingurunearen arteko erlazioak babesteko arauak errespetatu eta onartzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin lotura:

### Egokitzapena eta malgutasuna.

2. maila (*Mugikortasun segururako beharrezkoa den gizarte-adostasun gisa onartzen du araua*).



## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honen bidez giza-ekintzak ingurune eta osasunean duen inpaktuari buruzko kontzientzia hartzea sustatu nahi da, azken hamarkadetan eragindako inpaktua batez ere.

Mugikortasuna espazio publikoan izango da jardueraren ardatz: jasangarritasun arazoak eta pertsonentzat kaltegarri diren ekintzak hain zuzen (eta trafiko-istripuen ondorioz jasaten diren heriotza goiztiarra eta zauri larriak).

## Helburuak:

- Mugikortasunari lotutako ekintzen eragina egiaztatzea, ingurune eta pertsonengan.
- Gehiegizko arriskuak onartzearen ondorioak ikustea.
- Modu kolektiboan proposamenak sortzea, arrisku-jokaerak murrizteko eta gure ekosistemaren jasangarritasunerako.

## Metodoak:

Banakako lana eta talde-lana. Informazioa bilatzea. Edukien sintesia. Ondorioak ateratzea.

# 14. jarduera – Bizitza kalean ●●●

## Beharrezko baliabideak:

Papelografo edo arbela.  
Kartulina gorri, hori eta berdeak.  
Horma-irudi handi bat ezartzeko espazioa ikasgelan.  
Bluetack edo zinta itsasgarria.  
Ordenagailua Interneterako sarbidearekin.  
Orientazio modura erabiltzeko gidoia (1. Eranskina).

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak taldeari proposatuko dio joan-etorriak egiteko moduak edo bideko egoerak zerrendatzeko. Zerrenda papelografo edo arbelean idatziko du hezitzaileak, zenbatuz.
- Joan-etorriak egiteko modu berriak edo bideko egoera ezberdinak gehitu daitezke. 1. eranskinean adibide batzuk luzatzen ditugu.
- Parte-hartzaile bakoitzak zerrendako egoera bat aukeratuko du eta jasangarritasunean eta segurtasunean duen inpaktua aztertuko du.
- Parte-hartzaile bakoitzari bi txartel hori, bi txartel gorri eta bi berde banatuko zaizkio.
- Txartel horietan aukeratutako bideko egoera edo mugitzeko modua idatziko dute eta ingurumenari dagokion ondorio kaltegarri bat; txartel gorrietan, pertsonen bide-segurtasunean mugitzeko modu horrek duen inpaktua; berdeetan arriskuaren prebentzio-neurriak.

- Parte-hartzaileek Internet bidez bilatu ahal izango dute txarteletan idatzi beharrekoak bilatu eta datuak emateko informazioa.
- Banaka egindako lanaren ondoren hiru edo lau pertsonatako taldeak osotuko dira.
- Taldekide bakoitzak bere hausnarketak partekatuko ditu. Besteen ekarpenekin bakarka egindako hausnarketak osotu eta aberastu daitezke.
- Azkenik koloretako txarteletan horma-irudi bat osotuko dute. Horma-irudi horretan mugikortasun egoerak, jasangarritasunean eta bide-segurtasunean eragiten dituzten inpaktuak eta prebentzio-neurriak azalduko dira.

## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Mugikortasun jardueren inpaktua, bai ingurunean zein pertsonengan.
- Mugikortasunean ematen diren ekintza arriskutsuak eta arriskua murrizteko martxan jarri beharreko ekintza seguruak hautematea.
- Ingurumenari dagokionez, autokritika ikuspegia eta begirune jarrera izatearen garrantzia.



| Mugikortasun egoera | Jasangarritasunean duen inpaktua | Pertsonen segurtasunean duen inpaktua | Prebentzio-ekintzak |
|---------------------|----------------------------------|---------------------------------------|---------------------|
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |
|                     |                                  |                                       |                     |

# 14. jarduera – Bizitza kalean ●●●

## 1. Eranskina

Joan-etorriak egiteko moduak edo bideko egoerak.  
Modura erabiltzeko gidoia

1. Bizikletaz zirkulatzea.
2. Autoz zirkulatzea hirian zehar, trafikoarekin.
3. Patinetean egitea joan-etorria.
4. Motoz zirkulatzea.
5. Itxaronaldian aparkatzea, norbaiteri itxaroteko.
6. Salgaiak kargatzea eta deskargatzea.
7. Kirola egitea, parkeetan edo errepidetik korrika eginez.
8. Gurpil-aulkian mugitzea.
9. Kaleak eta errepideak gurutzatzea.
10. Taxi bat gidatzea.
11. Autobus bat gidatzea.
12. 20 edo 30 guneko kale batetik paseatzea.
13. Oinezkoen gunean paseatzea.
14. Trafikodun hiri bateko kaleetan zehar paseatzea.
15. Errepide batetik paseatzea.
16. Haur-kotxean umearekin ibiltzea.
17. Adin txikiko bat eskutik helduta ibiltzea.
18. Bidaiari izatea auto baten.
19. Bidaiari izatea autobus baten.
20. Bidaiari izatea moto baten.
21. Adin txikikoak ibilgailu pribatuan garraiatzea.
22. Autobidean bidaiatzea, auto bat gidatuz.
23. Bakarrik bidaia luze bat egitea autoz.
24. Bidaia luze bat egitea familiarekin.
25. Bidaia luze bat egitea motoz beste motozale batzuekin batera.
26. Txango bat egitea bizikletaz, beste bizikletazale batzuekin batera.



# 15. jarduera – Hobekuntza plana ●●●

## Curriculumari dagokion helburua: :

Zientziaren eta Teknologiaren prozedurak eta jarrerak erabiltzea, estrategia desberdinak landuz eta aplikatuz inguruko eta eguneroko bizitzako problemak konpontzeko, eta kritikoa izatea konponketara iritsi arteko prozesuarekin.

## Curriculumari dagozkion edukiak:

### 6. maila. Teknologia-proiektua.

- Teknologiaren erabilerak lanaren antolamenduan eta giza harremanetan duen eragina behatu eta aztertzea, teknologiaren bilakaeraren azterketaren bidez.
- Garapen zientifiko eta teknologiak ingurumenean eta gizakiaren denbora librearen antolaketan izan duen eta duen eragina aztertu eta kritikoki balioestea.
- Lan-mota jakin baten jarraibide orokorrak, eta lanetako eta etxeko jardueretan nahiz jarduera ludikoetan erabiltzen diren aparailuen erabilera eta segurtasun-arauak errespetatzea.
- Makina eta erreminten mantentze-lanak egiteko ohiturak eta jarrerak garatzea.

## Mugikortasun segururako gaitasunekin

### lotura:

### Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

3. maila (*Ibilgailuaren segurtasun aktiboa eta pasiboa bermatzeko beharrezkoak diren osagaiak berrikusten eta mantentzen ditu*).



## Jardueraren deskribapena:

Jarduera honen bidez, ibilgailuetan trafiko-istripuak ekiditeko zein elementu egon behar den egoera onean identifikatuko da. Identifikatu ondoren ibilgailuen mantentzea egiteko proposamenak osatu beharko dira.

## Helburuak:

- Ibilgailuen erabilpen eta mantentzeak pertsonen segurtasunean dituzten ondorioak aztertzea.
- Egunero erabiltzen ditugun ibilgailuak egoki erabili, aztertu eta mantentzeko prozesuak diseinatzea.
- Aukera berritzaileak proposatu eta garatzeko prozesuak deskribatzea.

## Metodoak:

Talde-lana.


## Beharrezko baliabideak:

Papelografo edo arbela.  
Paperezko orriak.  
Kolorrezko kartulinak.  
Mantentze-lanen zerrenda (1. Eranskina).

# 15. jarduera – Hobekuntza plana ●●●

## Jardueraren garapena:

- Hezitzaileak azalduko du ibilgailu bat erabiltzeak (autoa, bizikleta edo motorra), ibilgailu hori mantentzea dakarrela. Mantentze hori era egokian egiteko ezinbestekoa da arau batzuk jarraitzea.
- Parte-hartzaileak binaka jarriko dira eta Interneten autoen, motorren eta bizikleten mantentzea egiteko aholkuak bilatuko dituzte.
- Bikoteka, ibilgailu bakoitzerako aholkatutako mantentze-ekintzen zerrenda bat osotuko dute. Zerrenda hau osatzeko 1 eranskineko mantentze-lanen zerrenda erabiltzea gomendatzen da.
- Ondoren lau kidetako taldeak osotuko dira eta talde bakoitzak mantentze-lan bat aukeratu du. Taldeak zehaztu beharko du mantentze hau ez bada egiten zein kalte izan ditzakeen gidatzen duen pertsonak, inguruko pertsonak edo inguruneak.
- Aurreko puntuan aztertutako informazio guztia txosten labur baten jasoko du talde bakoitzak. Arriskua prebenitzeko egin beharreko ekintzak zehaztuko dira txosten honetan eta mantentze-lanak egiteko beharrezkoak diren prozesuak ere bai.
- Hezitzaileak taldekideak neurri berritzaileak proposatzera animatuko ditu. Neurri berritzaile hauek lagungarriak izan behar dira ibilgailuen erabiltzaileek prebentziorako mantentze-ekintza hauek burutzeko.
- Mantentze-lanen azken txostenak beharrezkoa den informazio guztia bilduko du: eskemak, argazkiak, plangintza taulak, baliabide eta profesionalen zerrendak etab.



## Ondorioak:

Jarduera bukatzean, parte-hartzaileek zera barneratuko dute:

- Bide publikoetatik zirkulatzen duten ibilgailuen egoera araudia betetzeko elementu batez gain, segurtasun elementu bat da pertsonentzat (ibilgailuan dabilzan pertsonentzat, gidarientzat, bidaiarientzat eta baita kaleetan oinez dabilzanentzat).
- Ibilgailuak aztertu eta zaintzea erraza da baldin eta argi badugu zer egin behar den, nola eta zergatik: prozesuak eta soluzioak baliabide argi eta koherenteak dira ibilgailuen mantentzerako eta arrisku-egoerak ekiditeko.



# 15. jarduera – Hobekuntza plana ●●●

## 1. Eranskina Mantentze-lanen zerrenda

Taula hau lagungarria izan daiteke taldeek ibilgailuak egoera onean izateko zein mantentze-lan egin behar den identifikatzeko.

Hirugarren eta laugarren zutabeak beraien iritziekin eta beste informazio-iturri batzuetatik lortutako informazioarekin (Internet adibidez) beteko dira.

Parte-hartzaileek gai honen inguruan dauden web-orrialdeak kontsultatuko dituzte. Adibidez:

Autoaren mantentzea  
<https://www.autocasion.com/actualidad/reportajes/como-llevar-el-mantenimiento-de-tu-coche>

Bizikletaren mantentzea  
<http://biciplan.com/blog/consejos-para-ciclistas/mantenimiento-basico-de-la-bicicleta/>

Motorraren mantentzeao  
<https://www.motorpasionmoto.com/seguridad/cinco-puntos-esenciales-para-mantener-tu-moto-en-forma>

| IBILGAILUA       | Mantendu beharreko elementuak | Mantentze-lana | Mantentzen ez bada arriskua |
|------------------|-------------------------------|----------------|-----------------------------|
| <b>AUTOA</b>     | Gurpilak                      |                |                             |
|                  | Argiak                        |                |                             |
|                  | Likidoak                      |                |                             |
|                  | Triangelua eta osagarriak     |                |                             |
|                  | Balaztak                      |                |                             |
|                  | Mekanika                      |                |                             |
|                  | Iragazkiak                    |                |                             |
| <b>BIZIKLETA</b> | Txaleko islagailua            |                |                             |
|                  | Gurpilak                      |                |                             |
|                  | Argia                         |                |                             |
|                  | Balaztak                      |                |                             |
|                  | Jantziak eta kaskoa           |                |                             |
|                  | Mekanika                      |                |                             |
| <b>MOTORRA</b>   | Argiak                        |                |                             |
|                  | Balaztak                      |                |                             |
|                  | Likidoak                      |                |                             |
|                  | Jantziak eta kaskoa           |                |                             |
|                  | Mekanika                      |                |                             |

Material honen egileak:

---



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

formaccio

taller kreatiboa  
taller creative  
creative workshop

tk

---

2019

---

